

ZIENTZIA ESPERIMENTALAK

Nahia GALBETE ARNAZ

ESKOLA OSASUNTSUAK: ADIMEN  
ANITZEN TEORIAREN APLIKAZIOA  
KONFIANTZAREN PEDAGOGIAN

TFG/*GBL* 2017

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Infantil  
*/ Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua*



**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Infantil**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**ESKOLA OSASUNTSUAK: ADIMEN ANITZEN  
TEORIAREN APLIKAZIOA KONFIANTZAREN  
PEDAGOGIAN**

Nahia GALBETE ARNAZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEK FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES  
**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Nahia GALBETE ARNANZ

**Izenburua / Título**

Eskola osasuntsuak: Adimen Anitzen teoriaren aplikazioa Konfiantzaren Pedagogian

**Gradu / Grado**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Maidier PEREZ DE VILLAREAL ZUFIAURRE

**Saila / Departamento**

Pedagogia eta Psikologia saila/ Departamento de Psicología y Pedagogía

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2016/ 2017

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberria/ Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduoko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua/ak, psikologia eta pedagogia arloetakoak alegia, lana burutzeko beharrezkoak izan diren kontzeptu teorikoen ezagutza ahalbidetu du, honi esker izan baitut Howard Gardner-en Adimen Anitzen teoriaren eta honek hezkuntzan izan duen eraginaren ezagutza.

Didaktika eta diziplinako modulua garatzen da bai atal teorikoan eta baita atal praktikoan ere, bi hauetan Adimen Anitzen teoriak eskolen errealitatearekin duen lotura, eta zehazki Konfiantzaren Pedagogian erabiltzen duten metodologian, nola aplikatzen den ikusten baita.

Halaber, Practicum moduluak bidea eman digu lanaren atal teorikoa eta atal praktikoaren arteko lotura burutzeko; Iñigo Aritza ikastolan burututako praktika asteetan zehar bildu baitira lanaren atal praktikoan guneen analisisa egiteko datuak, Konfiantzaren Pedagogian kontuan hartzen duten Adimen Anitzen teoria horretarako bide izanik.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira *discusión*, *conclusión* eta *futuras líneas de investigación* atalak.

Azkenik, aukerako moduluak, hau da ingelerako aipamenak, esparrua ematen dio adimen linguistikoaren gogoeta pertsonal sakonago bati. Hau da, lanean adimen linguistikoa beste adimenak bezala garatu den arren, aipamenean lortutako ezagutzek adimen linguistikoaren inguruan behatutakoren analisi sakonagoa egitea ahalbidetu dute.

## Laburpena

Adimena XIX. mendetik asko ikertu den kontzeptua izan den arren, Howard Gardner-ek 1987. urtean Adimen Anitzen teoria sortu zuenetik, adimena bakarra denaren ideia baztertuz joan da, honek eskoletan eragin nabarmena izan duelarik. Hori dela eta, teoria honek eragiten duen eskola inklusiboa eta ikasleen garapen integrala kontuan hartuz, lan honen helburua Adimen Anitzen teoriaren aplikazioa ikastoletan, zehazki Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan (Nafarroa), erabiltzen duten Konfiantzaren Pedagogiaren barne aztertzea izan da. Horretarako, Gardner-ek proposatutako zortzi adimen ezberdinak lantzeko sortu diren guneen artean lau urteko ikasleek egiten duten aukeraketa askeko datuak bildu dira, bai generoaren eragina eta baita proposamen berrien sartzea kontuan hartuz.

*Hitz gakoak:* Adimen Anitzak, Konfiantzaren Pedagogia, Guneak, Generoa, Proposamenak.

## Resumen

A pesar de que la inteligencia ha sido un concepto muy investigado desde el siglo XIX, cuando en 1987 Howard Gardner creó la teoría de las Inteligencias Múltiples, la idea de que la inteligencia es una sola ha sido descartada, teniendo así esto mucha influencia en las escuelas. Es por ello, y teniendo en cuenta la escuela inclusiva y el desarrollo integral del alumnado que esta teoría contempla, el objetivo central de este trabajo ha sido investigar la aplicación de la teoría de las Inteligencias Múltiples dentro de la Pedagogía de la Confianza utilizada en las *ikastolas*, concretamente en Iñigo Aritza ikastola de Alsasua (Navarra). Para ello, se han recogido datos acerca de la selección libre que el alumnado de cuatro años hace de los rincones creados para fomentar las ocho inteligencias que Gardner propone, teniendo en cuenta variables como el género y la realización de nuevas propuestas.

*Palabras clave:* Inteligencias Múltiples, Pedagogía de la Confianza, Rincones, Género, Propuestas.

**Abstract**

Although intelligence has been a much investigated concept since the 19th century, when Howard Gardner created the Multiple Intelligences theory in 1987, the idea that the intelligence is only one has disappeared, having this a big impact in schools. Due to this, and taking into account the inclusive schools and the integral development of students that this theory creates, this work has the aim of investigating the application of the Multiple Intelligences theory inside the Pedagogy of Confidence used at the *ikastolas*, specifically at Iñigo Aritza ikastola in Altsasu. For this aim, data of the free selection that four year old students do of the different corners created to promote Gardner's eight intelligences has been taken, considering gender and new proposal variables.

*Keywords:* Multiple Intelligences, Pedagogy of Confidence, Corners, Gender; Proposals.



## Aurkibidea

### Sarrera

<b>1. Marko teorikoa</b>	<b>2</b>
1.1. Zer da adimena?	2
1.2. Adimen Anitzen teoria	7
1.2.1. Adimen Anitzen teoriaren printzipio garrantzitsuak	8
1.2.2. Zergatik dira adimenak eta ez talentuak edo aptitudeak?	8
1.2.3. Adimena zehazteko irizpideak	9
1.2.4. Adimen anitz motak	11
1.2.4.1. Adimen linguistikoa	12
1.2.4.2. Adimen logiko- matematikoa	13
1.2.4.3. Adimen bisual- espaziala	14
1.2.4.4. Adimen naturalista	15
1.2.4.5. Adimen musikala	17
1.2.4.6. Adimen gorputz- zinetikoa	18
1.2.4.7. Adimen interpertsonala	19
1.2.4.8. Adimen intrapertsonala	20
1.2.5. Adimen Anitzen teoria eta eskola	21
1.3. Adimen Anitzen teoriaren garapena Konfiantzaren Pedagogian	22
1.3.1. Zer da Konfiantzaren Pedagogia?	23
1.3.2. Konfiantzaren Pedagogiaren oinarri zientifikoak	24
1.3.2.1. Etologia	24
1.3.2.2. Konduktismoa	25
1.3.2.3. Soziokonstruktibismoa	26
1.3.2.4. Psikologia kognitiboa	26
1.3.2.5. Neurozientziak	27
1.3.3. Konfiantzaren Pedagogia garatzeko baldintza pedagogikoak	28
1.3.3.1. Pertsonaren zaintza eta garapena	28
1.3.3.2. Testuingurua	29
1.3.3.3. Irakatsi eta ikastea	30
1.3.4. Ikasleak eta irakasleak	31
1.3.4.1. Zaintza	31
1.3.4.2. Behaketa	32

1.3.4.3. Inertziak eta beldurrak	32
<b>2. Konfiantzaren Pedagogiaren azterketa Haur Hezkuntzan: datu enpirikoak</b>	<b>33</b>
2.1. Sarrera	33
2.2. Hipotesiak	34
2.3. Helburuak	34
2.4. Testuingurua: Iñigo Aritza ikastola	35
2.4.1. Ikastolako testuingurua	35
2.4.2. Gelako testuingurua	36
2.5. Metodologia	36
2.5.1. Haur Hezkuntzako metodologia	37
2.5.1.1. Eguneko plangintza	37
2.5.1.2. Zirkulazio libreko guneak	38
2.5.2. Guneen analisiko metodologia	49
2.6. Emaitzak	54
2.6.1. Guneen lehenengo aukeraketa	54
2.6.1.1. Guztira	56
2.6.1.2. Mutilengan	56
2.6.1.3. Neskengan	57
2.6.2. Guneen aukeraketa goizean zehar	58
2.6.2.1. Guztira	59
2.6.2.2. Mutilengan	60
2.6.2.3. Neskengan	61
2.6.3. Guneen lehenengo aukeraketaren eta goizean zehar aukeratutako guneen lotura	62
2.6.3.1. Guztira	62
2.6.3.2. Mutilengan	62
2.6.3.3. Neskengan	63
2.6.4. Gune gustukoenak	64
2.6.4.1. Guztira	64
2.6.4.2. Mutilengan	65
2.6.4.3. Neskengan	66
2.6.5. Proposamen berri baten sartzea: lekaleen landaketa	67
2.7. Discusión	68
2.8. Conclusiones	

## 2.9. Futuras líneas de investigación

### **Erreferentziak**

### **Eranskinak**

#### **A. Eranskinak I: Datu bilketarako taulak**

#### **B. Eranskinak II: Argazkiak**



## SARRERA

Urteetan zehar adimena bakarra zela defendatu den arren eta dena Koziante Intelektualen (KI) testetara mugatu den arren, Gardner-ek Adimen Anitzen teoria plazaratu zuenean ordura arte zeuden ideia guztiak aldatu zituen. Hori dela eta, lan honetan zehar, Adimen Anitzen teoriaren aurrekariari erreparatu eta pixkanaka Gardner-en ideietan murgilduko gara.

Lehenik eta behin, esan beharra daukat, nire hasierako gaia zen “Eskola osasuntsuak Haur Hezkuntzako ikasleen ongizate emozionala lortzeko” Adimen Anitzen teoriarekin lotu dudala Gardner-ek (1995) esan zuen ideia honen harira: “denok ez ditugu gaitasun eta interes berak; denok ez dugu modu berean ikasten”. Hau da, nire ustez, ikasleen garapen integrala ahalbidetuko duen eskola inklusibo eta osasuntsu bat nahi badugu, Gardner-en hitz horiek kontutan hartzea funtsezkoa da. Horregatik, ikasle guztiak ezberdinak direnaren eta bakoitzaren gaitasunak, interesak eta ezaugarriak ezberdinak direnaren ideiatik habiatuz, adimenaren ikuspuntu pluralista bat eskoletan izatea funtsezkoa da, beste gauza batzuen artean, eskolak sor dezakeen sufrimendu kompetentziala ekiditen asko lagundu dezakeelako.

Idea horiek kontuan hartuz, Ikastolen Elkarteko zenbait ikastoletan duela urte batzuk aplikatzen dauden Konfiantzaren Pedagogia dago, honek, beste ideia batzuekin batera, Adimen Anitzen teoria hartzen baitu kontutan. Hau da, Konfiantzaren Pedagogiaren ondorioz ikasleei askatasunez aukeratzeko proposatzen zaizkien guneak, Adimen Anitzak garatzeko daude pentsatuta.

Horregatik guztiatik, lan honetan zehar, Adimen Anitzen teoriara eta Konfiantzaren Pedagogiara hurbilpen txiki bat egin ondoren, Konfiantzaren Pedagogia aplikatzen duten Iñigo Aritza ikastolako errealitatera egingo dugu salto, bertako lau urteko ikasleek Gardner-ek proposatzen dituen zortzi adimenak garatzeko sortu dituzten guneen artean egiten aukeraketak aztertuz.

## 1. MARKO TEORIKOA

### 1.1. Zer da adimena?

Historian zehar adimenaren inguruko definizio, teoria, ikerketa... ugari egon diren arren, gaur egun oraindik adimena argi ez dagoen kontzeptu bat da. Horregatik, egile, iturri, garai edota kultura ezberdinei erreparatu ezkeru, adimenaren inguruko oso ideia ezberdinak aurki ditzakegu (Herrero, 2014):

- “Adimena nire testak neurtzen duena da” (Binet y Simon, 1905).
- “Adimena pentsamendu abstrakturako gaitasuna da” (Terman, 1916).
- “Adimena nerbio-sistemaren aldagarritasun orokorra da” (Pinter, 1921).
- “Adimena ingurura moldatzeko ahalmena da” (Tamayo, 1952).
- “Gaitasun intelektuala da” (Casares, 1992).
- “Ulertzeko gaitasuna. Arazoak ebazteko ahalmena. Jakintza. Trebetasuna eta esperientzia. Funts espiritualak” (RAE, 2001).

Hala ere, historian zehar kontzeptu honen inguruan egon diren ikerketak, definizioak eta teoriak sakonago aztertuko dira jarraian:

Adimena, hasiera batean eta gizakiaren sorreran, talde biziraupenarekin erlazionatua zegoen kontzeptua zen. Hau da, lehen gizakiak, ehizarako, fruitu bilketarako, babeslekuak aurkitzeko... erabiltzen zuen adimena.

XIX. mendera arte, filosofoak izan ziren adimenaren ikertzaile bakarrak, eta horretarako, introspektio metodoa eta gizakiaren sorkundearen ikuspegia hartu zuten kontutan.

XIX. mendea baino lehen ikuspuntu filosofiko batetik adimena aztertu ez zuen bakarrik Juan de Huarte mediku eta idazlea izan zen. 1575. urtean *Examen de ingenios para las ciencias* (de Huarte, 1575) izenburupean argitaratu zuen liburuan, pertsonen ariketa eta funtzio ezberdinak burutzeko trebetasunez mintzatu zen (Ander-Egg, 2007).

Industria iraultzak, gizartean aldaketak ekarri zituen eta orokorrean ezagutza zabaldu zenez, adimen logiko- matematikoari eta linguistikoari garrantzia handia ematen hasi zitzaion.

Horren ondorioz, XIX. mendean hasi ziren adimena ikuspegi zientifikoago batetik aztertzen, hau da, psikologia filosofiatik aldentzen hasi zen. Zientzia positiboek garrantzia hartu zuten arlo askotan, baita psikologian ere, eta horregatik, buruaren inguruko ikerketak metodo enpirikoa erabiliz aztertzen hasi ziren (Ander-Egg, 2007).

Hasteko, Broca-k garezurraren tamaina eta honen inguruko ezaugarriak aztertzen zegoela, egun Broca eremua izenez ezagutzen dugun lengoia garatzeko zonaldea aurkitu zuen. Ikerketari honi esker, garunaren inguruko datu ugari lortu zituen: pisua, zirkunferentzia, kapazitate kraneala...

Bestalde, Broca bere ikerketak egiten jarraitzen zuela, Galton-ek, Darwinen lanak oinarritzat hartuz, *Hereditary genius* (Galton, 1869) izenez ezagutzen den ikerketan ezberdintasun intelektualak azaldu zituen metodo kuantitatiboa erabiliz. Berak adierazi zuenez, natura eta jaiotzetiko gaitasunak bizitzan arrakasta edo porrota izateko funtsezkoak dira, eta bere hasierako ideiak (gerora guztiz egia ez dela frogatu dena) esaten zuenez, herentzia biologikoak inguruneak baino eragin handiagoa du adimenean. Gainera, ikerketa horren ondorioz, ezberdintasun intelektualak Gauss-en kanpaiaren arabera banatzen zirela ondorioztatu zuen eta eskoletan adimenaren lehenengo ikerketa objektiboak egin ziren (Prieto y Ferrándiz, 2001).

Mende bat geroago, ikerketa honi teknika berriak erantsi eta jarraipena eman zioten Alph-ek eta Pearson-ek, eta 1969. urtean Jensen-ek eta 1973. urtean Hernsein-ek, Galton-en ideiak jarraituz, herentziak adimenean duen eragina azaldu zuten (Molero, Saiz y Esteban, 1998).

XIX. mendera bueltatuz, Galton herentziak adimenean duen eragina aztertzen zebilela, Wundtek prozesu mentalak introspektio metodoaren bitartez ikertzeko laborategi bat sortu zuen; ondoren laborategi ugarian errendimendua, herentziaren papera eta gaitasun mentalaren azterketa egiteko balio izan zuena.

Beraz Broca, Galton eta Wundt adimena aztertzen lehenak izan ziren. Hala eta guztiz ere, azterketak ez ziren bere horretan gelditu eta jarraian sakonago azalduko diren Binet-ek, Spearman-ek eta Catell-ek adimenaren ikerketa enpirikoari bultzada handia eman zioten (Molero et al., 1998).

Hasteko, Cattelek 1887. urtean adimena zehaztasun gehiagoz ebaluatzeko testa sortu zuen eta horretaz gain, adimen testek eskola errendimenduko adierazle paregabeak zirela defendatu zuen.

Testekin jarraituz, 1904. urtean, Binet-ek eta bere kide Simonek adimena neurtzeko lehenengo testa sortu zuten, eta hauen arabera, adimenak zentzu praktikoa, inizatiba, inguruneari egokitzeko gaitasuna eta zentzutasuna izatea zekarren bere baitan. Hauek, adin mentalaren kontzeptua gehitu eta metodo biometrikoa adimena neurtzeko tresna bezala ezeztatu zuten. Horretaz gain, beraien ustez, faktore genetikoek adimenean eragina zuten arren, eragin sozialak ere garrantzia handia zuela baieztatu zuten (Bourre, 1991).

Baina gizakion adimenaren neurketa faktorial zientifikoa egin zuen lehenengoa Spearman izan zen 1904. urtean. Bere ekarpen garrantzitsuena, adimen orokor baten azalpena izan zen, ikasleen artean egon daitezkeen adimen ezberdintasunak azaltzeko baliagarria izan zena. Bere aburuz, adimena bi faktore klabe kontuan hartuz definitu behar zen: *G faktorea* (barneratutako ezagutzak sortu eta aplikatzeko gaitasuna) eta *S faktorea* (barneratutako ezagutzen gaitasun eta trebetasunen arteko erlazioa) (Gallesi y Matalinares, 2012).

Bineten lanarekin jarraitu zuen 1915. urtean Terman-ek eta bera izan zen adimen testak AEB-n zabaltzen lagundu zuena. Gainera, Koiziente Intelektualaren (KI) baliotasuna eta arrakasta profesional eta eskolakoa frogatu zuen, eta berari esker egin zen gaitasun handiko pertsonen lehenengo ikerketa.

Horretaz gain, ikaskuntzaren inguruan ikerketa ugari egiteagatik ezaguna den Thorndike-k ere adimenaren testen garapena bultzatu zuen, eta asoziazioan oinarritutako ikaskuntzaren teoriarik oinarritzen zen adimenaren inguruko teoria berri bat proposatu zuen (Molero et al., 1998).

1938. urtean, Thurstonek ere adimenaren inguruan ekarpenak egin zituen eta zazpi gaitasun mental primario definitu zituen: hizkuntza ulermena, hitz-jarioa, kalkulurako gaitasuna, pertzeptiorako gaitasuna, errepresentazio espaziala, memoria eta arrazonamendu inductiboa (Gallesi et al., 2012).



Zenbait urte geroago, Guilfordek adimena azaltzeko faktore anitzak frogatu zituen eta *Adimenaren Egitura* izenenez ezagutzen den teoria sortu zuen. Teoria honen arabera, adimenak lau eduki, bost eragiketa mental eta sei prozesu kognitiboz osatuta dago. Horrenbestez, sormenaren inguruan ere ekarpenak egin zituen eta sormena pentsamendu konbergentearen (ikaskuntzen erreprodukzio eta memorizazio prozesuekin lotuta) eta dibergentearen (aurretiko ezagutza modu berri batez erabiltzean datzana) batura zela esan zuen (Ander-Egg, 2007).

1976. urtean, Carrol-ek adimenaren egitura hierarkikoarekin zerikusia zuen teoria plazaratu zuen. Lehenengo mailan adimena orokorrean ezartzen zuen, bigarren mailan bigarren ordena bateko zortzi gaitasun (adimen arina, kristalizatua, ikasteko prozesuak, memoria, pertzepzio bisuala, entzutezko pertzepzioa, azaleko produkzioak eta azkartasuna), eta azkenik, hirugarren mailan beste faktore espezifikoago batzuk zehaztu zituen (Prieto et al., 2001).

1978. urtean, Hunt-ek, lan kognitiboak eta lan hauek ebazteko erabilitako prozesuen arteko lotura ikertu zuen, horretarako, gehien bat azkartasuna eta prezisioa zehaztuz.

Lau urte geroago, 1982. urtean, Stenberg-ek bere adimen teoria garatu zuen. Bere ustez, adimena hiru adimen motez osatua dago: konponentziala edo analitikoa (informazioa barneratzeko), esperimentala edo sintetikoa (arazo berriei erantzuna emateko eta praktikoa (inguruarekin elkar-eragiteko). Ondoren, 1986. urtean adimena, kreatibitatea eta jakinduriaren arteko banaketa egin zuen. Azkenik, 2003. urtean, ikasteko gaitasunaren naturaltasuna eta potentzialaren neurketa aztertu zituen eta adierazi zuen giza ezaugarri ugari (adimena hauen artean) eragiten dutela faktore genetiko eta inguruko arteko elkarreraginean. Bestalde, geneek adimenean duten eragina ezin dela neurtu ez estimatu adierazi zuen (Ander-Egg, 2007).

1983. urtean, Howard Gardner-ek, Thurston-en ideiekin jarraituz, adimena eta bikaintasun akademikoa dena ez direla planteatu zuen, eskolan horrenbesteko garrantzia ematen ez zaien beste gaitasun batzuk baitaude. Horregatik pertsonen garapen osorako 7 adimen mota (1995etik aurrera 8) zehaztu zituen, aurrerago zehaztasun handiagoz azalduko direnak (Gardner, 1995).

Brown eta Campion-entzat, 1984. urtean adierazi zutenenez, adimena ikasteko eta ikasitako hori praktikara pasatzeko gaitasuna da. Hori dela eta, Vygotsky-ren *andamiai* kontzeptua kontuan hartu zuten CI-aren alternatiba bezala proposatu zuten ebaluazioa burutzeko (Pena y Repetto, 2008).

1986. urtean, autore ugari egin zioten erreferentzia adimenari. Alde batetik, Glaser-ek eskolaren berantolaketa emanaz adimena garatu eta bultzatzeko aukera defendatu zuen. Bestetik, Jensen-ek adimenean bi maila daudela adierazi zuen: lehenengo mailan asoziaziorako gaitasuna kokatu zuen eta bigarrean, informazioaren manipulazioa eta transformazioa (arrazonamendua, arazoaren ebazpena, erabakitze gaitasuna...) zeudela adierazi zuen. Hirugarrenik, Schank-ek adimena indibiduo batek informazio berria errealitatea beste modu batean aztertze erabiltzen duenean eta akatsak aurretiko esperientziak erabiliz hobetzen dituztenean ematen dela esan zuen. Show-ek adimena aztertze modelo berri bat aurkeztu zuen, sei alderditan bereizten zena: pentsamendua, arrazonamendua, sentimendua eta ezagutza, egokitzapenerako ahalegina, arrazonamendu arina eta analitikoa, buruko poztasuna eta ikaskuntza idiosinkrasikoa. Ikerlari honentzat pertsonen modu ezberdinetan ikasten dute eta hau izan behar litzateke, bere ustez, adimenaren ikerketan beti kontuan hartu beharreko oinarria. Azkeneko urte honetan, Butterfield-ek arazo bati aurre egiteko eta metakognizioaren eta errutina exekutibo berritzaile baten garrantzia azpimarratzen du adimena definitzerakoan (Ander-Egg, 2007).

Urteei erreparatu gero, 80ko hamarkadan adimenak hartu zuten garrantzia ikus dezakegu eta 1989. urtean ere bi autorek idatzi eta ikertu zuten adimenaren inguruan. Lehenik, Horn-ek adimena gaitasun kognitibo ezberdinen batura zela adierazi zuen: ikus-entzunezko pentsamendua, epe luzerako eta laburrerako memoria, informazioaren bilketa, irakurtzeko azkartasuna, informazio metaketa, erabakiak hartzea, arretarako azkartasuna, ezagutza estrukturatua eta arrazonamendurako flexibilitatea. Ezaugarri hauek kontuan hartu eta adimenaren errendimendua azaldu zuen. Bigarrenik, Ackerman-ek adimenen arteko ezberdintasunak eta hauek lantzeko gaitasuna aztertu zuen. Hori dela eta, azkartasunarekin, memorizazioarekin eta eskuratzeararekin lotutako gaitasunak landu eta irakatsi daitezkeela esan zuen.

Azkenik, Perkins-ek hiru adimen mota banatu zituen: neurologikoa, existentziala eta erreflexiboa. Neurologikoa genetikak zehazten duen arren, existentziala eta erreflexiboa entrenatu egin daitezkeela esan zuen.

Laburbilduz, historian zehar adimena ikertu duten autore gehienak kontutan hartzen baditugu, denak adimenaren hiru kokapenetan zentratzen direla antzeman dezakegu (Valero, 2007):

- Norbanakoaren adimena: maila biologikoaz, molarraz eta jarrerazkoaz osatuta.
- Ingurunearen adimena: kultura, gizarte maila eta intra-kultura eragile dituen.
- Norbanakoaren eta ingurunearen elkarreraginaren arteko adimena: aurreko biak batzen dituen.

## 1.2. Adimen Anitzen teoria

Behin adimenaren kontzeptuaren historiaz sakonki hitz egin ondoren, aurretik aipatu bezala, Gardner-en *Adimen Anitzen teoria*-ren inguruko zehaztasunetan eta teoria honek eskola eremuan izan duen eraginean murgilduko gara jarraian.

Lehenengo Koiziente Intelektuala (KI) neurtzeko testak azaldu eta ia 80 urte geroago, Harvard-eko unibertsitateko Gardner psikologoak aurretik adimenaren inguruan zeuden ideiei erronka bat planteatu zien. Psikologo honen ustez, ordura arte adimena modu murriztegiaren definitua izan zen, eta horren ondorioz, zazpi adimen mota (hauei 1995. urtean zortzigarren adimen bat batu zien) proposatu zituen (Gardner, 1987).

Teoria honen bitartez, Gardner-ek Koiziente Intelektualeko emaitzek erakusten dutenetik haratago joan eta giza potentziala aztertu nahi zuen.

Bere ustez, KI neurtzeko testek pertsonak euren ikasteko inguru naturaletik eta normalean egiten dituen lanetatik bereizten ditu. Horren ondorioz, adimena arazoak konpontzeko eta inguru naturalista eta aberats batean produktuak sortzeko gaitasuna bezala definitu zuen (Armstrong, 1999).

Behin adimenaren kontzeptua birplanteatu zuenean, konturatu zen adimena oso modu ezberdinetan garatzen dela pertsonetan, horregatik, pertsonak dituzten gaitasun anitzak hasiera batean zazpi multzotan eta ondoren zortzitan multzokatu zituen.

### 1.2.1. Adimen Anitzen teoriaren printzipio garrantzitsuak

Adimenak zehazteko, lau puntu nagusi hartu zituen kontuan Gardner-ek (1995):

- Pertsona guztiek zortzi adimen dituzte. Zortzi adimenetan gaitasunak ditu pertsona orok, baina adimen bakoitzak modu ezberdin batean funtzionatzen du pertsonaren arabera.
- Pertsona gehienek kompetentzia maila egoki bateraino garatu dezakete adimena, beti ere estimulu eta instrukzioa egokia bada.
- Adimen ezberdinek batera egiten dute lan modu konplexu batean. Horregatik, ezin dira adimen bakoitza Adimen Anitzen testuingurutik atera, beraien artean elkarrengaitan dutelako.
- Kategoria bakoitzaren barruan, adimendun izateko modu ezberdinak daude. Horregatik, Adimen Anitzen teoriak adimen bakoitzaren barruan adimendun izateko modu ezberdinak azaltzen ditu.

### 1.2.2. Zergatik dira adimenak eta ez talentuak edo aptitudeak?

Zortzi adimen hauen aurrean, eta bereziki musikala, espaziala eta gorputz-zinetikoarekin, pertsona askoren galdera izaten da ia zergatik deitzen zaien “adimen” eta ez “talentu” edo “aptitude”.

Gardner, konturatu zen jende askoren artean errepikatzen zirela mota honetako esaldiak: “ez da oso jakintsua, baina musikarako aptitude berezia du” (Gardner, 1995). Hori dela eta, berari egindako elkarrizketa batean honakoa esan zuen: “Si afirmase que existen siete tipos de competencias, la gente diría “Sí, sí”. Pero al llamarlas “inteligencias” estoy diciendo que hemos puesto en un pedestal a una diversidad llamada inteligencia, y que en realidad existe una pluralidad de inteligencias, algunas de las cuales nunca hubiesemos considerado como tales” (in Weinreich- Haste, 1985, p. 48).

Bere baieztapenei oinarri teoriko batzuk emateko asmoz, Gardner-ek adimen bakoitzarentzako espezifikoak diren test batzuk proposatu zituen eta adimen espezifiko bat adimen bezala kontsideratzeko testa pasatzea derrigorrezkoa zela

adierazi zuen, modu honetan talentu, aptitude edo gaitasun batean ez geratzeko. Hauek izan ziren adimen bakoitza zehazteko erabili zituen irizpideak:

### 1.2.3. Adimena zehazteko irizpideak

- *Garun lesioak egonez gero adimen bat isolatu daitekeenaren aukera:* Gardner-ek *Boston Veterans Administration-en* istripuen edo gaixotasunen ondorioz garuneko zonalde espezifikoko bat isolatuta zuten pertsonekin lan egin zuen. Lan horren ondorioz, konturatu zen posible zela garuneko zonalderen bat kaltetuta izatea eta modu honetan, fakultateren baten garapena galarazita izatea. Hau da, posible zela adimen bat garatzeko zonaldea kaltetuta izatea baina besteen garapena arazorik gabe ematea. Esate baterako, posible zen Broca zonaldearen lesio baten ondorioz adimen linguistikoa garatzeko arazoak izatea baina kalkuluak egiteko, dantzatzeko, besteekin erlazionatzeko... gaitasuna izatea (Antunes, 2011).
- *Historia ebolutibo laudagarria izatea:* Gardner, adimen bakoitzak gizakien eta beste izaki bizidun batzuen garapenean sustraiak irmoki sendotuak dituela azaltzen du. Beste modu batera esanda, adimen batek denboran zehar garapen bat izan behar duela aipatzen zuen. Hau da, esate baterako, adimen musikalaren hastapenak lehenengo instrumentu bat jotzean izan ditzakeen arren, txorien kantuan ere izan ditzake. Hau da, Adimen Anitzen teoriak testuinguru historikoarekin lotura handia dauka (Armstrong, 2006).
- *Funtzio zentral eta funtsezkoa burutuko duten operazio identifikagarri baten edo gehiagoren existentzia:* Adimen bakoitzak, adimen horretan bakarrak diren eta adimen hori aurrera eramateko zenbait alderdi ditu. Esate baterako, adimen musikalak berezko operazio batzuk ditu, hala nola, erritmoa, tonua edo armonia. Hala ere, honek ez du zertan esan nahi adimen batzuk beste adimen batzuekin intererlazionatuak egon daitezkeenik eta adimen batean baino gehiago aldi berean ezin daitekeenik lan egin (Armstrong, 2006).
- *Sinbolo sistema baten kodifikaziorako aukera:* Gardner-ek dioenez, portaera adimentsu baten adibide nabaria da bizitzan zehar, gizakiok sinbolo sistema ezberdinak ikasten joaten garela, hala nola, ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia, marrazkiak, sistema matematikoak... Hauek guztiak adimenen garapenarekin

erlazio zuzena daukate. Hori dela eta, esan daiteke sinbolo sistema ezberdinak ikasten joaten gara gure adimenak hobetzeko asmoz (Antunes, 2011).

- *“Amaierako egoera” adieraziko duten garapen garbi eta jokaera definizioak:* Gizartean garatu nahi izango den funtzioaren arabera, pertsona bakoitzak adimen bakoitzaren garapen prozesu ezberdin bat du. Haurtzaroan agertzen diren adimenak bizitzan zehar goraka joaten dira eta baita, adinean aurrera goazen heinean beheraka ere. Adimen musikala, esate baterako, kasu berezia da, bere eraginkortasuna luzea delako. Adibidez, Mozart bost urterekin hasi zen lehenengo obrak sortzen eta badaude 80 urterekin oraindik bikaintasunez konposatzen jarraitu dezaketen pertsonak ere. Adimen logiko- matematikoak, bestalde, beste bide bat jarraitzen du: ez da oso goiz antzematen baina nerabezaroan puntu gorenean egoten da. Hala ere, normalean, 40 urtetatik aurrera ez du aurrerapauso handiegirik ematen. Horregatik guztiagatik, Gardner-ek bizitzan zehar adimen batean bikaintasuna lortu duten pertsonen “azken egoerak” aztertzeraz bultzatzen du (Armstrong, 2006).
- *Jenio, prodigio eta beste pertsona ezohikoen izatea:* Zehazki, jenio edo *idiot savant* bezala definitzen dituen pertsonak adimen zehatz batean nabarmentzen diren baina beste adimenekin arazoak aurkezten dituzten pertsonak dira. Esate baterako autismoa duten pertsona ugari adimen muskala edo logiko-matematikoa oso garatua izaten dute, baina adimen interpersonalean edo linguistikoan, ordea, arazo nabariak izaten dituzte. Bestalde prodigio bezala definitzen diren pertsonak, adimen batean baino gehiagotan gailentzen dira eta beste adimenetan, ordea, garapen konstante bat izaten dute, nahiz eta gailentzen diren adimenen mailara ez iritsi (Antunes, 2011).
- *Psikologia esperimentalaren laguntza izan:* Gardner-en aburuz, ikerkuntza psikologikoak adimen bakoitzaren funtzionamendua modu isolatuan aztertzeko tresna bikainak izan daitezke. Esate baterako, ikerkuntza hauen ondorioz, konturatzen gara zenbaitetan gizakiak ez duela zailtasunik izaten bi ekintza aldi berean burutzeko, hala nola, ibili eta aldi berean hitz egiteko. Baina beste batzuetan, ordea, konplexutasun maila handiagoa izaten da, esate baterako, zailagoa izaten da hitz egin eta aldi berean hitz gurutzatu bat ebatzea (Antunes, 2011).

- *Datu psikometrikoen laguntza izatea:* Adimen Anitzen teoria datu psikometrikoetatik jaio ez zen arren, adimenekin lan egiteko orduan ere hauek, beste datu batzuekin batera, kontutan hartzea oso garrantzitsua da; datu hauen bidez, adimenekin lan egiteko osagarria izan daitekeen informazioa lortu baitaiteke. Gardner, adimena neurtzeko testen jarraitzailea ez den arren, Adimen Anitzen teoria sostengatzeko estandarizatutako test-ak erabiltzera bultzatzen du (Armstrong, 2006).

#### *1.2.4. Adimen anitz motak*

Hasiera batean Gardner-ek zazpi adimen mota (linguistikoa, logiko-matematikoa, bisual- espaziala, gorputz- kinestesikoa, musikala, interpersonala eta intrapersonala) zeudela azaldu zuen arren, azken 30 urteetan, hasiera batean sortu zuen teoria doitzen joan da. Hori dela eta, geroago beste adimen mota bat gehitu zion hasierako zerrendari, adimen naturalista hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, Gardner-ek gain, ikerlari ugari aztertu dute teoria hau eta zenbaiten arabera, beharbada 12 edo 60 adimen mota inguru egon daitezke. Esate baterako, aipatutako adimen hauetaz gain, Gardner-ek ondoren egin dituen ikerketen ondorioz, adimen espirituala, adimen existentziala eta adimen morala existitu daitezkeela dio, eta Goleman-ek proposatutako adimen emozionalaren inguruan ere eztabaidatu izan du (Gardner, 2001).

Aurretik aipatu den moduan, adimenak euren artean interdependienteak dira, hau da, ez dute modu isolatuan funtzionatzen eta bakoitzak bere ezaugarriak dituen arren, euren arteko osagarri dira (Gardner, 1987). Horren ondorioz, eskoletan adimen mota guztien garapenean lan egitea funtsezkoa da, modu honetan ikasleek (ikaslearen arabera batzuk gehiago edo gutxiago) denak garatzeko aukera izango baitute. Hala eta guztiz ere, eskola gutxietan ematen da aukera hau, gehienetan adimen batzuk asko balioesten baitira (adimen logiko- matematikoa adibidez) eta beste batzuk gutxietsi (adimen musikala adibidez). Dena dela, adimen mota guztiak, egunerokotasuneko arazoak konpontzen laguntzen diguten potentzialak diren heinean, garrantzia berdina izan beharko lukete (Rodríguez de Ávila, Amaya y Argota, 2011).

Bestalde, Gardner-ek bere teoria plazaratu zuen arte, berak adimen bezala kontsideratu zituen batzuk talentuak zirela kontsideratzen zen. Hori dela eta, Adimen Anitzen teoriak tradizionalki adimen moduan eta talentu moduan kontutan hartu izan direnak biltzen ditu (Pena y Repetto, 2008).

Behin Adimen Anitzen teorian kokatu ondoren, Gardner-ek proposatzen dituen adimen mota bakoitzaren azalpen laburra emango da jarraian:



## 1. Irudia. Adimen anitz motak

### 1.2.4.1. Adimen linguistikoa

- **ZER DA?**

“Adimen linguistikoa ama hizkuntza edo beste hizkuntza batzuk modu eraginkorrean komunikatzeko, pentsamenduan dagoena adierazteko eta lengoaiaren bitartez munduari zentzua emateko gaitasuna eta trebetasuna da” (Ander-Egg, 2007, p. 102).

- **EZAUGARRIAK**

Adimen honen ezaugarri zehatzak honako hauek dira (Ander-Egg, 2007):

- Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia erabiltzeko gaitasuna.



- Ideiak erlazionatu eta hitzetara pasatzea.
- Pentsamenduak eta sentimenduak argitasunez erabiliz komunikatzea.
- Esanahi konplexuak adierazi eta ulertzea eztabaidatu eta limurtzeko.
- Aspektu fonologikoekiko sentsibilitatea izatea.
- Hitzak, esaldiak eta testuak gogoratzeko memoria bisual eta entzutezkoa.

- **NORTZUK DUTE?**

Adimen mota hau, istorioak idazteko, irakurtzeko, errimekin jolasteko, beste hizkuntza batzuk erraztasunez ikasteko... gaitasuna duten pertsonak garatuago izaten dute; hala nola (Gardner, 1995): poetek, nobelistek, kazetariak, politikariak, irakasleak, olerkariak, motibatzaileak, abokatuek...

- **GARATZEKO ESTRATEGIAK**

Armstrong (2006) erreferentzia moduan hartuz, adimen mota hau eskoletan garatzeko honako estrategiak (jarduerak eta ikasteko moduak) daude:

- Ipuinen irakurketa.
- Ideien zaparrada, modu honetan ikasleek ahozko hizkuntza erabiliz euren ideiak bota eta antolatzen. Haur Hezkuntzan, esate baterako, asanbladan.
- Ikasleen grabaketak egitea.
- Edozein gairen inguruko egunerokoak idaztea.
- Ikasleek egindako ahoz zein idatzizko lanen argitalpenak egitea.

#### 1.2.4.2. Adimen logiko- matematikoa

- **ZER DA?**

“Adimen logiko- matematikoa kalkuluarekiko erraztasunean, espazioen geometria ezberdintzeko, problema logikoak sortzeko eta ebazteko gaitasuna da” (Antunes, 2011).

- **EZAUGARRIAK**

Adimen honen ezaugarri zehatzak honako hauek dira (Ander-Egg, 2007):

- Objektuak eta hauen funtzionamendua antzematen du.

- Kantitate, denbora eta kausa- efektu kontzeptuak menperatzen ditu.
- Erlazioak antzeman eta hipotesiak planteatu eta probatu egiten ditu.
- Gaitasun matematiko ezberdinak erabiltzeko gai da; hala nola: kalkulua, estatistiken interpretazioa edo informazioaren aurkezpena modu grafikoan.

- **NORTZUK DUTE?**

Adimen mota hau, planteamendu eta problemak analizatzeko erraztasuna duten pertsonen eta kalkulu numerikoekin, estatistikekin eta presupuestoekin lan egiteko gaitasun handia duten pertsonen dute; hala nola (Gardner, 1995): ekonomistek, ingeniariak, zientzialariak, xake jokalariek, matematikariek, fisikariek, ikertzaileak, bankariek...

- **GARATZEKO ESTRATEGIAK**

Armstrong (2006) erreferentzia moduan hartuz, adimen mota hau eskoletan garatzeko honako estrategiak (jarduerak eta ikasteko moduak) daude:

- Kalkuluak egitea.
- Saillapenak egitea.
- Hipotesiak sortzeko asmoz ikasleei galderak egitea.
- Teknika heuristikoak: ikasleek alderdi batzuk beste batzuekin erlazionatzen ikasi eta lana lan txikiagoetan deskonposatzea emaitzak modu errazagoan lortzeko.
- Pentsamendu zientifikoa garatzea: ikasleek gogoeta, behaketa edo ikerketaren bitartez ebatzi beharreko problemak planteatzea.

#### 1.2.4.3. Adimen bisual- espaziala

- **ZER DA?**

“Adimen bisual espaziala arakatzeko eta irudi bisualak sortzeko laguntzen duen adimen mota da; modu honetan gauzen ezaugarri berezkoen bereizketa eginez. Gainera, buruan irudiak sortzeko eta abstrakzio mentalak egiten dituen adimena da” (Coto, 2009).

- **EZAUGARRIAK**

Adimen honen ezaugarri zehatzak honako hauek dira (Ander-Egg, 2007):

- Errealitatea antzematen du tamaina, norabide eta erlazio espazialak kontuan hartuz.
- Behatutako objektuak buruan irudikatzen ditu.
- Objektu berdinak egoera ezberdinetan antzematen ditu; irudia pertsonarengan irmoki mantentzen da eta horren ondorioz, egoerari eta lekuari erreparatu gabe objektua identifikatzeko gai da.
- Espazioari dagozkien aldaketak aurreratzen ditu eta objektu batek aldaketaren bat izan ezkeru nola geratuko den aurreratzen du.
- Ezberdinak diren objektuen arteko kointzidentziak eta berdintasunak deskribatzen ditu.

- **NORTZUK DUTE?**

Adimen mota hau, plano eta krokisak ulertzen dituzten pertsonak, mapa kontzeptual eta buruzkoak egitea gustuko duten pertsonak eta eskemen, koadroen edo grafikoen bidez euren burua antolatzen duten pertsonak dute; hala nola (Gardner, 1995): eskultoreak, margolariak, itsas gizonak, gida turistikoak, arkitektoak, dekoratzaileak, ingeniariak, esploratzaileak, kirurgilariek...

- **GARATZEKO ESTRATEGIAK**

Armstrong (2006) erreferentzia moduan hartuz, adimen mota hau eskoletan garatzeko honako estrategiak (jarduerak eta ikasteko moduak) daude:

- Ikasleei zerbait (paisai bat esate baterako) ikustarazi, honen inguruko gogoeta egin eta marrazki batean egitea eskatzea.
- Koloreak erabiltzea.
- Metaforen erabilpena egitea irudiak erabiliz. Hau da, transmititu nahi dugun ideia bat irudi baten bidez egitea.
- Bozetoak egitea.
- Irakasleak azalpenen bat eman behar duenean marrazkiak erabiltzea.

#### 1.2.4.4. Adimen naturalista

- **ZER DA?**

Gardner-ek (1987) Adimen Anitzen teoria plazaratu zuenean, ez zuen adimen mota hau kontutan hartu, baina gerora, ordea, 1995. urtean, inguru naturala ulertzeko eta horretan modu eraginkor batean lan egiteko gaitasunean datzan adimen berria gehitu zuen. Hori dela eta, Martin Lobok (2004) horrela definitzen du adimen hau: adimen naturalista inguru naturalaren (landareen, animalien eta naturaren behaketa zientifikoaren) ulermenean datza. Horretaz hain, izaki bizidunekin erlazionatzeko eta bizitzako patroiak eta indar naturalak bereizteko balio duen adimena da.

- **EZAUGARRIAK**

Adimen honen ezaugarri zehatzak honako hauek dira (Ander-Egg, 2007):

- Giza esparruak interesez eta gogoz arakatzen ditu.
- Objektu, landare edo animaliak behatzeko, identifikatzeko, elkarri eragiteko eta hauen zainketaz arduratzeko aukerak aprobetxatzen ditu.
- Espezie bereko edo objektu klaseen patroiak ezagutzen ditu.
- Taxonomia berriak sortu, bizi zikloen teoriak garatu edo objektu eta sistemen arteko patroi eta interkonexio berriak plazaratzen ditu.

- **NORTZUK DUTE?**

Adimen mota hau, espezie inorganiko eta organikoak ezagutu eta sailkatzeko gaitasuna duten pertsonak dute; hala nola (Gardner, 1995): biologoek, belar biltzaileek, ozeanografoek, geologoek, albaitariak, basozainek, fisikariek, botanikariek, lorezainek, kimikariek...

- **GARATZEKO ESTRATEGIAK**

Armstrong (2006) erreferentzia moduan hartuz, adimen mota hau eskoletan garatzeko honako estrategiak (jarduerak eta ikasteko moduak) daude:

- Ikastetxeko leihotik paisaia begiratzea.
- Ikasgelan landareak izatea edota ikastetxeko baratza izatea.
- Animaliak ikastetxeko eremuan presente egotea.
- Ingurugiroarekiko errespetua sustatzea.

#### 1.2.4.5. Adimen musikala

- **ZER DA?**

Adimen musikala soinuak eta forma musikalak antzeman, bereizi, eraldatu eta adierazteko gaitasuna da. Adimen mota honek inguruko soinuak, ahotsak, instrumentu musikalak, erritmoak, konpasak eta melodiak bereizten laguntzen duena da (Díaz, 2007).

- **EZAUGARRIAK**

Adimen honen ezaugarri zehatzak honako hauek dira (Ander-Egg, 2007):

- Soinu ezberdinak entzun eta hauekiko interesa dauka, hauen artean gizakion ahotsa.
- Musika edo inguruko soinuak entzutea atsegina du eta hauek entzuteko aukerak bilatzen saiatzen da.
- Musika ikasi eta honekin esploratzeko gogoia izaten du.
- Musika eta honen inguruko informazioa biltzen du.
- Abesteko edo instrumentu bat jotzeko gaitasuna garatua du.
- Erritmoak inprobisatuz disfrutatzen du eta esaldiei zentzu musikala ematen die.

- **NORTZUK DUTE?**

Adimen mota hau, soinuak barneratu, eraldatu eta adierazteko gaitasuna duten pertsonen dute; hala nola (Gardner, 1995): abeslariak, musikariak, orkestra zuzendariak, musika kritikariak, konpositoreak, dantzariak...

- **GARATZEKO ESTRATEGIAK**

Armstrong (2006) erreferentzia moduan hartuz, adimen mota hau eskoletan garatzeko honako estrategiak (jarduerak eta ikasteko moduak) daude:

- Erritmoen gauzatzea: zerbait errezeitatzeko momentuan erritmo ezberdinez baliatzea.
- Abestiak: garatu nahi diren eduki teorikoak abestien bidez laguntzea.
- Melodia bidezko azalpenak: irakasleak musika lasaia jartzen du ikasleek lan egiten duten bitartean edota berak azalpen bat eman bitartean.

- Kontzeptu musikal ezberdinak: tonua edo tinbrea bezalako kontzeptu musikalak erabili daitezke transmititu nahi diren edukiekin erlazionatzeko.
- Gaien araberako melodiak: eduki zehatz baten inguruko melodiak aukeratu eta gaia lantzen hasi baino lehen jartzea.

#### 1.2.4.6. Adimen gorputz- zinetikoa

- **ZER DA?**

“Adimen gorputz- zinetikoa mugimendu fisikoarekin eta gorputzaren ezagutzarekin lotuta dago. Garunaren azal motorearekin, hau da, gorputzaren mugimendua erregulatzen duenarekin, harreman estua dauka (Díaz, 2007).

- **EZAUGARRIAK**

Adimen honen ezaugarri zehatzak honako hauek dira:

- Motrizitate finaren eta lodiaren kontrol handia dauka.
- Gorputzeko zentzumenen bidez ezagutzak barneratzen ditu.
- Ukimenaren eta mugimenduaren bidez ingurua arakatzen du.
- Koordinazioa eta erritmoa dauka.
- Inguru eta sistema fisiko ezberdinen ezaugarriekiko sentsibilitatea dauka.

- **NORTZUK DUTE?**

Adimen hau garatuta duten pertsonen euren ideiak eta sentimenduak gorputzaren bidez adierazten dituzte eta euren eskuekin gauzak eraldatu eta ekoitzi ditzake; hala nola (Gardner, 1995): kirolariek, kirurgilariek, dantzariak, artisauek, eraikitzaileak, mimoak, mekanografoak...

- **GARATZEKO ESTRATEGIAK**

Armstrong (2006) erreferentzia moduan hartuz, adimen mota hau eskoletan garatzeko honako estrategiak (jarduerak eta ikasteko moduak) daude:

- Irakasleak planteatzen dituen galderei gorputzaren bidez erantzuna ematea.
- Antzezpenak egitea.
- Kontzeptu teorikoak mugimenduaren bidez ikastea. Hau da, esate baterako, definizio bat gorputzaren bidez ematea.

- Manipulazio jolasak
- Gorputz segmentuen erabilpena egitea. Hau da, ikasleek gorputzeko atal ezberdinez baliatuz arazo ezberdinei aurre egitea; hala nola, behatzen bidez batuketak egitea.

#### 1.2.4.7. Adimen interpertsonala

- **ZER DA?**

“Adimen interpretsonala besteak ulertzeko gaitasuna da; honetan motibazioak, funtzionatzeko erak eta taldean lan egiteak eragiten dutelarik” (López de Bernal y González Medina, 2003, p.109).

- **EZAUGARRIAK**

Adimen honen ezaugarri zehatzak honako hauek dira (Ander-Egg, 2007):

- Besteak ulertzeko gai da.
- Bere ideiak argi azaltzen ditu.
- Informazio trukaketak egiteko gaitasuna dauka.
- Besteengan eragiten du.
- Arazoak konpontzeko erraztasuna dauka.
- Talde lanean lan egitea gustatzen zaio.
- Malguak dira eta momentura egokitzen dira erraztasunez.

- **NORTZUK DUTE?**

Adimen mota hau duten pertsonak besteen sentimenduak, intentzioak, arrazoiak etab. erraz jasotzen dituzte; hala nola (Gardner, 1995): politikariek, terapeutek, irakasleek, aholkulariek, erlijiosoek, gizarte langileek, saltzaileek...

- **GARATZEKO ESTRATEGIAK**

Armstrong (2006) erreferentzia moduan hartuz, adimen mota hau eskoletan garatzeko honako estrategiak (jarduerak eta ikasteko moduak) daude:

- Elkarbanatzearen garrantzia azpimarratzea.
- Taldeka lan egitea.
- Jolas arautuetan taldeka jolastea.

- Antzezpenak egitea.
- Taldeka gorputzekin figura ezberdinak sortzea.

#### 1.2.4.8. Adimen intrapertsonala

- **ZER DA?**

“Adimen hau barnekoa, pribatua, bakoitzaren intimitatearekin zerikusia duena da, eta nolakoak garen, gure burua nola zaintzen dugun, emozioak nola kontrolatzen ditugun eta daukagun indar mentala zehazten du” (Coto, 2009, p. 135).

- **EZAUGARRIAK**

Adimen honen ezaugarri zehatzak honako hauek dira (Ander-Egg, 2007):

- Bere emozioak ondo ezagutzen ditu.
- Gogoetarako gaitasun handia dauka.
- Bere mugak eta aukerak ezagutzen ditu.
- Bere barneko elkarrizketak eta iritziak aztertzen ditu.
- Emozioak kontrolatzeko gaitasuna dauka.
- Auto-motibaziorako gaitasuna dauka.

- **NORTZUK DUTE?**

Adimen mota hau duten pertsonak euren buruaren irudi on bat dute. Horretaz gain bere emozioak, asmoak, desioak... identifikatzen ditu erraztasunez; hala nola (Gardner, 1995): psikoterapeutek, filosofoek, lider erlijiosoek, psikologoek...

- **GARATZEKO ESTRATEGIAK**

Armstrong (2006) erreferentzia moduan hartuz, adimen mota hau eskoletan garatzeko honako estrategiak (jarduerak eta ikasteko moduak) daude:

- Gogoetarako momentuak izatea.
- Ikasitakoaren eta ikasleen inguruaren arteko erlazioa egotea.
- Aldizkatzeak ematea ikasleek euren interesen eta grinen arabera jarraitu nahi duten bidea aukeratu dezaten.
- Emozioen lanketa egitea.
- Helburuak irakasleak jarri beharrean, ikasleek euren buruei helburuak jartzea.



### *1.2.5. Adimen Anitzen teoria eta eskola*

Behin adimen bakoitzaren ezaugarriak eta hauek garatzeko modua erreparatu ostean, eskolak adimen hauen garapenean funtsezko papera duela azpimarratu behar da. Eskolak, adimenak garatzen lagundu eta pertsonen bokazioak eta afizioak garatzen lagundu beharko luke; hau da, pertsona bakoitzaren adimenera moldatu beharko litzateke. Modu honetan, eskolatik laguntza hau jasotzen duten pertsonak gizarteari laguntza emateko inplikatuago eta konpetenteago izateko joera izaten baitute (Gardner, 1995).

Gardner (1995) etorkizuneko eskolaz mintzatzen denean, bi hipotesiren gainean egiten du: Alde batetik, pertsona guztiek ez dituztela interes berdinak esaten du. Bestetik, gaur egun inork ezin dezakeela ikasi beharreko guztia ikasi aipatzen du. Horregatik, egiten duguna, nahi duguna eta ahal duguna aukeratzen jakin behar dugula azpimarratzen du.

Bestalde, bere ustez, eskola urteak ez dira Adimen Anitzen bidez ikasleak etiketatzeko izan behar, baizik eta euren gaitasunak ezagutu eta esperientzia berrietan aplikatzeko izan behar dira.

Gainera, eskola urteak ere ikasleen puntu ahulak ezagutu eta hauei erantzuna emateko aukera paregabea direla esaten du, bereziki gaitasun garrantzitsu bati dagokienean. Hori dela eta, irakaskuntza- irakaskuntza prozesuetan kontuan hartzeko Gardner-ek honako hau zehaztu zuen (in Valero, 2007):

- Irakaskuntza adimenaren eboluzioan zehar ematen diren aldaketei egokitu egin behar da.
- Estimuluetan aberatsak diren testuinguruak oso egokiak dira lehenengo urteetan, baina nerabezarora iristen goazen heinean garrantzia galtzen hasten dira.
- Irakaskuntza esplizitua ikasle helduengan erabiltzeko egokiagoa da.
- Ikasleak irakaskuntza esplizituaren onurak hartzen dituzte euren prozesu ebolutiboan leku espezifiko bat okupatzen badu.

- Hezkuntza sistema kontziente izan behar da soilik gaitasun linguistikoak eta logiko- matematikoak garatuz beste adimenetan gaitasunak dituzten ikasleetan porrota sortu dezaketela.

Ideia hauen guztien ondorioz, Gardnerek hezitzaileen lanaren funtzioak honela zehazten ditu (Gardner, 1995):

1. Hezitzaile espezialistek eskolako ikasleen gaitasunak eta interesak ulertzen saiatu beharko dira.
2. Ikasle- curriculum gestoreak ikasleen perfilen loturak egin beharko ditu helburuekin, interesekin, edukiakin eta ikasteko modu ezberdinekin.
3. Eskola- komunitate gestoreak ikasleak komunitatean eman daitezkeen ikaskuntza momentuekin lotzen lagunduko du.

### **1.3. Adimen Anitzen teoriaren garapena Konfiantzaren Pedagogian**

Orain arte ikusi dugun moduan, azken urteetan garrantzia handia hartu duen teoria da Adimen Anitzen teoria. Garrantzia hau ere eskoletara hedatzen ari da pixkanaka eta metodologia ugari eta eskola ugari euren egunerokoan Gardner-en ideiak kontutan hartzen dituzte.

Urrunera joan gabe Espainiar estatuko 100 ikastetxe hoberenen rankingean hirugarren postuan kokatzen den *Collegi Montserrat* dugu adimen anitzetan oinarritutako hezkuntza Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte eskaintzen duen Kataluniako ikastetxe erlijiosoa (Barnés, 2015).

Euskal Herrian ere, badaude adimen anitzekin lan egiten duten ikastetxeak, eta horren adibide dugu Ikastolen Elkartearen eskutik azken urteotan garatzen dabilzan Konfiantzaren Pedagogia, beste korrante batzuen artean, Adimen Anitzen teoria hartzen baitu kontutan.

Hori dela eta, jarraian, Konfiantzaren Pedagogiaren nondik norakoak azalduko dira, ikuspuntu orokor bat azalduz eta Adimen Anitzen teoriarekin duen lotura aztertuz:

### 1.3.1. Zer da Konfiantzaren Pedagogia?

Konfiantzaren Pedagogiaren definizio zehatz bat oraindik ez dagoen arren, Antero (2015) kontuan hartuz, bi ideia nagusitan bere sustraiak eraikitzen dituela esan daiteke:

- “Konfiantzaren Pedagogia pertsonak bere buruarengan, beste pertsonengan eta bere inguruarengan konfiantza izatean oinarritzen da”.
- “Norberarengan konfiantza izatea arrakastaren gakoa da”.

Arizmendi ikastolan sortu zen Konfiantzaren Pedagogia, pertsonak begiratzeko modu baten atzean dagoela esan beharra dago: pertsona bakoitzak bere baitan daukala bere bizitzan garatu ahal izateko eta zoriotsu izateko guztia, alegia. Horregatik, hezkuntza tradizionalan eman ez den moduan, norberaren burua garatzeko eta zoriotsu izateko, begiratzearen eta ezagutzearen garrantzia azpimarratzen du Konfiantzaren Pedagogiak (Antero, 2015).

Hau da, pertsona guztiak elementu berdinez osatuak gaude, baina bakarrak eta errepika ezinak gara aldi berean. Hori dela eta, pertsonak begiratzen ikastea, ikustea eta ezagutzea funtsezko alderdiak dira, eta hauek landuz, pertsonetikiko konfiantza izaten hasten gara. Modu honetan, pertsona bati konfiantzaz begiratzen diogunean, pertsona horrek bere bidea aurkituko duela eta bere bizitzako egitekoa beteko duela transmititzen dugu.

Baina Konfiantzaren Pedagogia ez da soilik beste pertsonetikiko konfiantzara mugatzen, baizik eta norberaren buruan konfiantza lortzea, besteenganako konfiantza lortzea eta inguruan konfiantza lortzea dira bere helburuak, hauek lortuta pertsona horrek bere gaitasunak eta zailtasunak ahalik eta ondoen garatu eta kudeatu ahal izango baititu ikaste- irakaste prozesu batean barneratuz.

“Konfiantzaren Pedagogian azpimarra jartzen dugu konfiantzan, eta horregatik hala deitu diogu” (Landa, 2016).

“Edozein harreman konfiantzan oinarritzen da” (Antero, 2015).

### 1.3.2. Konfiantzaren Pedagogiaren oinarri zientifikoak

Konfiantzaren Pedagogia, aurretik sakon azaldutako Adimen Anitzen teoriak gain, beste ikerketa, teoria eta zientzia ezberdinek euskarritzen dute. Zientzia, ikerketa eta teoria hauek, ikasleen autokonfiantza, hezitzaileekiko konfiantza, ikaskideekiko konfiantza eta inguruarekiko konfiantza baimentzen dutelako hautatuak izan dira, modu honetan, irakatsi eta ikasteko prozesua atsegina, egokia eta arrakastatsua izatea lortzen baita (Antero, 2015). Orokorrean, Psikologia Humanistarekin bat egiten duten eta pertsonak modu zehatz batean begiratzen duten teoriak, ikerketak eta zientziak hartzen ditu, pertsona bakoitza bakarra dela eta pertsona bakoitzak bere burua ezagutu eta garatzeko gaitasuna duela esaten dutenak, alegia.

#### 1.3.2.1. Etologia

Antero (2015) kontuan hartu ezker, Konfiantzaren Pedagogian, haurren portaerak, jarrerak eta zirrarak ulertzeko hartzen da kontutan etologia, hau da, animalia espezieek ingurunean duten jokaera aztertzen duen biologiako atala.

Horregatik, esaten da gizakioi, animaliei bezala, senak (ikasi ez dugun eta genomaren erregistratua dugun egiteko modua) pizten zaizkigula barruko eta kanpoko estimuluen ondorioz.

Sen hauek lau dimentsio dituzte: motorra (iraupenerako ekintzak), emozionala (keinu eta hitzak), neurovegetatiboa (keinuak eta behaketa fisiologiko bidez antzemandakoak) eta imajinarioa (fantasiako irudi eta errepresentazio propioak). Gizakiongan biziraupenerako diren senak pizten direnean, garrantzitsua izaten da pertsonak transmititzen dituen seinaleak interpretatzea eta horiei erantzuna ematea, modu honetan lortzen baita garapen emozional eta kognitibo egoki bat (Antero, 2016). Hori dela eta, Konfiantzaren Pedagogian hezitzaileek ikasleei testuinguruak eskaintzen dizkiete, bere beharrei erantzuna emanez eta senen aurrean bidelagun izanez. Hau da, haurrari pizten zaizkion senak modu sentikor eta egoki batean erantzuna ematen dieten material eta espazioak eskainiz, beste haur batzuekin jardunez, babesa eskainiz, gogoak kudeatzen lagunduz...

Azkenik, esan beharra dago konfiantzaren pedagogiaren marko pedagogikoak ez dituela sen guztiak kontuan hartzen, soilik Rafael Cristobal-ek *El niño en la mirada del*

---

*conocimiento. Una pedagogía de la confianza* (2011) liburuan kontuan hartzen dituenak aipatzen ditu, beraiantzako haurren garapen indibidual eta sozialean garrantzitsuenak direlako: atxikitze sena, miatzeko sena, ihes egiteko sena, kidezeko sena, erasotzeko sena, hierarkiarako sena, zaintzeko sena eta sexurako sena.

### *1.3.2.2. Konduktismoa*

Konduktismoak defendatzen duenez, portaerak ikasi eta moldatu egiten dira bai errefortzuen bidez eta baita zigorren edo errefortzu negatiboen bidez. Konfiantzaren Pedagogiak, Konduktismotik hartzen ditu haurren garapena azaltzeko alderdi batzuk, nahiz eta beste batzuk ez dituen konpartitzen.

Hasteko, Konduktismoak defendatzen duenez, ikaskuntza asko imitazioz ematen dira, hori dela eta Konfiantzaren Pedagogiak hezitzaileen papera azaltzeko imitazio hau kontuan hartzen du. Hau da, ikasleek estimulu naturalen eta neutroen artean asoziazioak egiten dituzte eta horiek euren bizipenetan eta portaeran eragin zuzena izaten dute. Horren ondorioz, hezitzaileek ematen dituzten estimuluak egokiak izatea beharrezkoa dela defendatzen du Konfiantzaren Pedagogiak eta Anterok (2016) esaten duen moduan, “asoziazio pauloviarrek ahal den heinean plazerrarekin lotutakoak” izaten saiatzen dira.

Baldintzapen klasikoaren ideia horretaz gain, ikaskuntza sozialaren teoriaren zenbait ideia hartzen ditu Konfiantzaren Pedagogiak. Teoria honek dioenez, pertsonen besteek egiten dutena behatuz barneratzen dituzte portaera ugari. Hori dela eta, ikastolako haurrak batak bestetik eta helduengandik ikasten dutela kontuan hartzea beharrezkoa da. Hau da, haur bati portaera baten haurrean hezitzaile batek errefortzu negatibo bat egin diola ikusten badu beste haur batek, berak portaera hori ez duela egin behar ikasiko du eta bere jokaera moldatu egingo du.

Laburbilduz, Konfiantzaren Pedagogiak Konduktismotik hartzen duena hau da: ez da soilik lehen eskutik bizitako esperientzietatik ikasten, baizik eta besteengan behatzen denetik ere ikaskuntza ematen da.

### *1.3.2.3. Soziokonstruktibismoa*

Konfiantzaren Pedagogiak, ikaslearen ikas-prozesua eta ikasteko modua ulertzeko hartzen du kontutan soziokonstruktibismoa. Korrante honek defendatzen duenez, ezagutza eraikitze prozesua testuinguru errealetan, esanguratsuetan eta funtzionaletan ematen da. Hau da, ezagutza egunero eraikitzen da testuinguru ugaritan, eta horretarako, aurretik pertsona batek dituen ezagutzak ezagutza berriekin uztartu eta alderatu egiten dira.

Piagetek (in Tamayo, 2012) zioenez, “subjektua objektuarekin harremanetan jartzen denean gertatzen da ezagutzaren eraikuntza”, horregatik, ezagutza horren eraikuntza emateko, egitura mentalen eraldaketa ematea beharrezkoa da, esan bezala lehendik zegoen ezagutza ezagutza berriekin alderatuz eta asimilatuz.

Piageten ideia hori kontuan hartuz, Vigotsky-k (in Antero, 2015) planteamendu berri bat egin zuen. Bere aburuz, ezagutza berria beste batzuekin elkarreraginez ematen da eta horregatik, testuinguru soziokulturalak berebiziko garrantzia du.

Azkenik, Ausubel, Novak eta Hanesian-en (1978) ideiak ere kontuan hartzen ditu Konfiantzaren Pedagogiak. Autore hauek ziotenez, ezagutza berria ezagutza esanguratsua izatea lortu behar da, modu horretan bakarrik lortzen baita ezagutza berria beste testuinguru batzuetan aplikatzea eta epe luzerako memorian biltegitratzea.

Horregatik guztiagatik, Konfiantzaren Pedagogian berebiziko garrantzia ematen diote ikaskuntza modu kooperatiboan eta sozialean emateari.

### *1.3.2.4. Psikologia kognitiboa*

Psikologia Kognitiboa XX. mendearen bigarren erdian sortu zen eta giza gogamena aztertzen duen Zientzia Kognitiboaren zatia da. Paradigma honek dioenez, giza gogamenak informazioa prozesatzeko ahalmena dauka. Gainera, ezagutzaren azterketa egiten duen psikologiaren adar honek, ezagutza habian jartzen dituen mekanismoak (oinarrizkoak eta sakonak) ikertzen ditu, hala nola: memoria, ikaskuntza, arrazonamendu logikoa... (Psikologia Hiztegia, 1997).

Konfiantzaren Pedagogiak, oinarri hauekin lotuta dauden pentsatzeari buruzko azalpenak eta pentsatzen ikasteko azalpenak ematen dituzten zenbait autoreen ideiak jarraitzen ditu, hauen artean (Antero, 2015):

- *Practical Intelligence for Schools* (Stenberg, 1997): Teoria praktikara bideratzeko gaitasuna da, munduan ematen diren arazoak konpontzeko eta hauetara moldatzeko aukera ematen duena.
- CorT: Cognitive Research Trust (de Bono, 2009): 70. hamarkadatik irakasleek eskoletan erabili duten programa hau, pentsamenduaren inguruko ideia honetan oinarritzen da: “adimenak lan esperientziaren arabera egiten du lan”. Horren ondorioz, programa honen helburua ikasleak bizitza guztian zehar lagunduko dituen pentsatzeko gaitasuna garatzea da.
- “Zero” proiektua (Harvard University, 2016): Hezkuntza ikertu eta hobetzeko sortutako proiektua da. Proiektu honek, goi mailako prozesu kognitiboak hobetuz etorkizunean baliogarriak izango diren ikaskuntzak garatzea du helburu.
- Adimenaren Teoria Exekutiboa (Jose Antonio Marina, 2015): Garunak modu ez kontzientean hartzen duen informazioa modu kontzientean bideratzeko gaitasuna da. Hau da, esate baterako, informazio bat gure garunera iristen zaigu modu inkontzientean eta egoera kontziente batera pasatzen da sentimendu edo desira batzuk sortzen dituelako guregan.

Idea guzti hauek kontuan hartuz eta gizakion pentsamenduak nola funtzionatzen duen ongi jakinez, Konfiantzaren Pedagogian hezitzaileen egitekoa eta ikasleek lortzekoa honako hau da (Antero, 2015): Ikasleak euren ikaskuntza diseinatzen, antolatzen eta eraikitzen laguntzea eta ikastea.

#### 1.3.2.5. Neurozientziak

Azken urteetan, garunean gertatzen diren fenomeno neurologiko, fisiologiko eta kimikoak aztertzen duten zientziek garrantzia handia hartu dute, eta hauen eragina Pérez eta Gimeno (1992) dioten bezala, hezkuntzan nabaritu da. Egile hauen ideiak

kontuan hartuz, Konfiantzaren Pedagogiak neurozientzietatik hiru ideia nagusi hartu ditu (Antero, 2015):

- Garunaren plastikotasuna: garuna bizitza osoan zehar ikasteko programatua dagoen organoa bezala ikusita, eta jarduerak gure garunaren egitura kognitiboa baldintzatzen dutela kontuan hartuz, ikasleekin burutzen diren jarduerak euren bizitzarako esanguratsuak eta garrantzitsuak izatea oso garrantzitsua da.
- Inkontzientea: ikerketen arabera, gure garunak ez du kontzientziaren beharrik eraginkortasunez jarduteko, hau da, prozesuak automatizatzeko joera dauka. Honen barnean, ohiturak, zirrarak, balioak eta sinesmenak daude. Horregatik, pertsona oso eta askeak hezteko, inkontziente horretaz jabetzen lagundu behar du hezkuntzak.
- Emozioak edo zirrarak: zirrarak gizakiongan sortzen diren lehenengo gauzak dira eta hauetatik, sentimenduak sortzen dira. Hauen ondorioz, kanpo estimulu baten aurrean erreakzionatu egiten dugu. Hori dela eta, motibazioak eta zirrarak garrantzia handia dute hezkuntzan, hauek piztuz sortzen baita ikaskuntza esanguratsua.

### *1.3.3. Konfiantzaren Pedagogia garatzeko baldintza pedagogikoak*

Konfiantzaren Pedagogia garatzeko eta modu horretan Konfiantzaren Pedagogia modu egokian aplikatzen dela ziurtatzeko, ikastetxeetan oso kontutan hartzen dituzten hiru baldintza nagusi daude (Antero, 2016):

#### *1.3.3.1. Pertsonaren zaintza eta garapena:*

Hasteko, sarreran aipatu den moduan, ikastolako eremuan pertsonak euren buruan eta besteengan konfiantza izateko baldintzak ematen dira. Hori emateko, zaintza eta garapena egoki lantzea funtsezkoa da, eta horretarako, kontuan hartu beharreko zenbait puntu zehazten dituzte:

- Senak lantzea: ikasleak deseroso eta tentsioan sentiarazten dituzten hori deskargatzeko eta ikasle harmonikoak izateko lanketa egiten dute materialen bidez, testuinguruaren bidez eta babesaren bidez.



- Gaitasunak identifikatzea eta garatzen laguntzea: pertsona bakoitzak barnean dituen gaitasun eta potentzial ezberdinak identifikatu eta hauek garatzen laguntzea.
- Zailtasunak garaiz hautematea eta kudeatzen laguntzea: pertsonaren garapena eragotzi dezaketen gertaerak identifikatzea eta estrategia ezberdinen bidez kudeatzen laguntzea.
- Sufrimendurekin enpatizatzea: sufrimendu fisiko, psikologiko eta kompetentzialaren lekuan jartzea.
- Zaintzaileak zaintzea: alde batetik, ikastoletako profesionalen arteko kalitatezko harremanak eraikitzea, garapen pertsonala eta profesionala ematea eta espazio atseginak eraikitzen lagunduz; bestetik, gurasoei heziketa lanerako orientabideak ematea, zailtasunetan laguntzea eta pertsonak ikusteko modua komunikatzea.

#### 1.3.3.2. *Testuingurua*

Bigarrenik, testuinguruak konfiantza sentitzeko baldintza pedagogikoak eskaintzen ditu Konfiantzaren Pedagogiak modu honetan (Antero, 2015):

- Komunitatearekin lotura eginez: gurasoen eta herriarekin lotura eta inplikazioa bilatzen du, modu honetan haurrak bere ikastolako hezitzaileengan konfiantza izateko. Horretarako, familia ikastolako espazioetara sartu eta hezitzaileekin asko komunikatzen da eta ikastola herriko eragileekin eta herriko espazioekin harremana dauka.
- Espazio eta denborak kontuan hartuz: espazioaren diseinuak ikas-prozesuan, harremanetan eta ikasleen ongizatean garrantzia handia du, horregatik, honen diseinua izugarri zaintzen dute. Horretaz gain, haur eta gazteen erritmo biologikoa eta kognitiboa errespetatzen dute beti, pertsona bakoitzak erritmo ezberdina izan dezakeela jakinez eta epe zehatzak ez jarriz (Mugika, 2016).
- Gelan giro atsegina sortuz: harremanak eta komunikatzeko moduak errespetuan eta begirunean oinarritutako harremanak dira eta talde kohesioak garrantzia handia du.

- Taldekatze eraginkorrak eginez: taldekatzeak egiteko orduan, dominantzia mota (menderatzaileak eta menderatuak), lotura mota (lotzen duten ekintzak eta apurtzen dutenak), adimen mota (adimenaren arabera batzea), profil linguistikoa, sexu eta genero aniztasuna eta adin arteko komunikazioa hartzen dira kontuan.

#### 1.3.3.3. Irakatsi eta ikastea

Azkenik, irakatsi eta ikasteko prozesua arrakastatsua, gozagarria eta eraginkorra izateko eman beharreko baldintza zehatz batzuk daude Konfiantzaren Pedagogian (Antero, 2016):

- Berezko motibazioa mobilizatzea: jorratu nahi dugun horretan arreta jar dezaten, haurren interesetatik abiatzea, maite duten hori ikas dezaten.
- Ikaskuntza afektiboa ardatz izatea: benetako eta sakoneko ikaskuntza emateko eztabaidatzen eta azalpenak ematen ikasleak jartzea; pentsamendua, komunikazioa, esperimendazioa, manipulazioa eta elkarlana aktibatuz.
- Ebaluazio hezigarria izatea: irakaslearen irakasteko modua eta ikaslearen ikasteko modua baldintzatzen dituen ebaluazioa, ikasleek nora iritsi behar duten, non dauden eta zein urrats jarraitu behar dituzten identifikatzeko egiten da. Horretarako, gaitasunetara egokitutako helburuak jarri, helburu lorgarriak zehaztu eta saiakerak eta huts egiteak ahalbidetzen dituzte.
- Adimen anitzak lantzea: Konfiantzaren Pedagogiak, aurretik aipatu den bezala, Gardner-en Adimen Anitzen teoriarekin zerikusi zuzena du. Alde batetik, pertsonen gaitasunak (adimenak) elikatzearen garrantzia kontutan hartzen duelako eta bestetik, pertsona bakoitzak, ahalmen, gaitasun eta trebetasun ezberdinak dituenaren ideia babesten duelako (Antero, 2015).  
Horren ondorioz, Adimen Anitzak lantzeari garrantzia handia ematen zaio eta hauek garatu eta bizi ahal izateko, gune ezberdinak eskaintzen zaizkie ikasleei. Hau da, ikasle bakoitzak dituen adimenak garatu eta bere zaletasunak garatzea da eskolaren egitekoa.

#### *1.3.4. Ikasleak eta irakasleak*

Konfiantzaren Pedagogiaren ikuspuntutik, ikaslea ez da hutsik dagoen zerbait, baizik eta irakasleak gaitasun eta edukiz bete beharreko zerbait da. Hau da, Anteroren (2016) hitzetan ikusten den moduan, “ikaslea ondo armatuta eta ekipatuta dago berez. Gure egitekoa da berari horretaz jabetzen laguntzea, ahaldundu dadin, eta, auto-konfiantza horretatik abiatuta, berak egin ahal duen bidean laguntzea da”. Horren ondorioz, irakasleek ikasleek berez duten hori ateratzen laguntzen du.

Irakasleez ari garela, ezin dezakegu aipatu gabe utzi Konfiantzaren Pedagogian irakaslea ikaslearen bidelaguna dela. Horregatik, irakasleak ikasleen gaitasunak, beharrianak eta zailtasunak deskubritzen lagundu behar du, beti ere bere gaitasunen, beharrianen eta zailtasunen lanketa sakona eginda duenean.

Hori guztia dela eta, Konfiantzaren Pedagogiak, ikastetxetako profesionalek ikasleekin eta euren buruekin egin beharreko esku-hartzerako hiru eremu nagusi zehazten ditu:

##### *1.3.4.1. Zaintza*

Hasteko, Konfiantzaren Pedagogiarekin lan egiten duten profesionalek zaintza momentu ezberdinak dituzte (Landa, 2016):

Alde batetik, familiek ikastolarekin eta komunitatearekin duten harremana zaintzen dute. Horretarako, familiek ikastolako ateak beti zabalik izaten dituzte, eskola orduetan zehar ere, eta ez dira adaptazio- momentuak denbora tarte zehatz batera mugatzen. Hau da, ikasturte guztian zehar etortzen dira guraso, aitona-amona edo zaintzaileak ikasgeletara beraiek nahi izan ezker. Modu honetan, ikastolako profesionalen eta familien arteko harremanak irmotu egiten dira eta konfiantza-giroa sortzen da bi aldetatik, horrek ikasleek ikastetxearekiko eta hezitzailearekiko konfiantza areagotuz.

Bestetik, familia eta ikastolaren arteko harremanez aparte, irakasleek ikasleen arteko harremanak lantzen dituzte ere. Horretarako, adin ezberdinak dituzten ikasleak espazio berdinean egoten dira, adin ezberdinen arteko ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza izugarria izanik.

#### 1.3.4.2. *Behaketa*

Ikasleen ikaste-prozesua eta irakasleen irakaste- prozesua espazioaren esplorazioan eta besteekin sortzen dituzten harremanetan sortzen da eta hauek garatzen joan heinean, gaitasun eta zailtasunak azaleratzen joaten dira. Horren ondorioz, irakasleek haurrak behatzea funtsezkoa da, modu honetan soilik lortzen baita garapenerako esku-hartze eta baldintza egokien osaketa.

Anterok (2016) dioenez, “gure irakasleen profilean oso garrantzitsua da behatzaile iaioak izatea. Horretarako, lehenbizi, pertsonak nola funtzionatzen duen ezagutu behar dute, zer behatu jakiteko: pertsonak alderdi afektibo- emozionalean eta alderdi kognitiboan nola funtzionatzen duen ezagutu behar dute; gure garunak nola egiten duen lan; horrela, pertsona bere osotasunean ezagutuko dute.”

Behaketaren atalari amaiera emateko, behaketarako Rafael Cristobal-ek (2011) sortutako taula batzuk erabiltzen direla esan beharra dago. Irakasle guztiak espazio konpartitu batean haur guztien behatzaile direnez, denek adostutako item batzuk behatzen dituzte taulen bidez, eta modu honetan, ume bakoitzaren balorazioa aberatsagoa da.

#### 1.3.4.3. *Inertziak eta beldurrak*

Azkenik, ikastetxeko profesionalen lana Konfiantzaren Pedagogiaren garapenean eta horren ibilbidean eman daitezken zailtasunak ongi kudeatzean datza, modu honetan lasai egongo baitira bai hezitzaileak, baita ikasleak eta familiak ere. Hori dela eta, ikastetxeko komunitateko partaide guztien arteko inertzia eta beldurrak lantzen dituzte modu hauetan esate baterako (Antero, 2015):

- Ikastolako lankideen arteko konfiantza kudeatuz eta besteek egiten duten lanean sinetsiz.
- Gurasoek Konfiantzaren Pedagogiaren aurrean izan ditzaketen beldurrak kudeatuz.
- ...

## **2. KONFIANTZAREN PEDAGOGIAREN AZTERKETA HAUR HEZKUNTZAN: DATU ENPIRIKOAK**

### **2.1. Sarrera**

Urteetan zehar, eskolek matematikari eta hizkuntzari eman diote garrantzia gehien, beste gaitasun batzuekin erlazionatuta zeuden adimenak zeudela kontuan hartu gabe. Matematika eta hizkuntzari zegozkien irakasgaietan onak ziren ikasleak ziren hezkuntzan aurrera jarraitzen zutenak eta ikasle askok, eskolan arrakasta lortzeko kirolak edo musika bezalako eskolaz kanpoko ekintzetara joaten ziren (Barnés, 2015).

Baina 80eko hamarkadan, Gardner-ek, Adimen Anitzen teoria aurkeztu zuenetik, eskola asko dira autore honen ideien ildotik euren hezkuntza modeloa proposatzen dutenak. Horren adibide dugu Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak, 2005. urtetik garatzen dauden eta aurretik azaldu den Konfiantzaren Pedagogia.

Konfiantzaren Pedagogia Haur Hezkuntzan aurten garatzen hasi diren ikastoletako bat da Iñigo Aritza ikastola. Pedagogia hau aurrera eramateko, ikastola honetako beharrak, baliabideak, testuingurua... kontuan hartuz, Kabi Proiektua garatu dute eta Adimen Anitzen teoria, Haur Hezkuntzako (3-6 urte) espazioan zehaztu dituzten gune ezberdinetan hartzen da kontutan; Gardner-ek planteatzen dituen zortzi adimenak lantzeko espazioak zehaztuz.

Esan bezala, Konfiantzaren Pedagogian oinarritzen den proiektu berria da Iñigo Aritza ikastolako Kabi Proiektua, eta hemendik aurrera azalduko den ikerketa honek ikastola honetako errealitatea hartzen du kontuan.

Praktiketan aste batzuk eman ostean, haur bakoitzak gune ezberdinekiko lehentasuna zuela, gune zehatz bakoitzean zeuden ikasleak askotan egunetik egunera berdinak zirela, ikasle batzuek txoko batzuekiko lehentasuna zutela, gune batzuek beste batzuek baino arrakasta handiagoa zutela... konturatu nintzen eta behaketa honen ondorioz, Adimen Anitzen teorian oinarritzen diren guneen aukeraketaren ikerketa enpiriko bat eraman da aurrera hilabete batean zehar.

## 2.2. Hipotesiak

Esan bezala, ikastolako errealitatearekin egun batzuetan zehar kontaktuan egon ostean, ikerketa honetako hipotesiak honako hauek dira:

- Gardner-ek planteatzen dituen adimen batzuk (gorputz- zinetikoa esate baterako) beste batzuk (logiko- matematikoa esate baterako) baino askoz gehiago garatzen dira guneen aukeraketan desoreka handiak daudelako.
- Generoaren arabera guneen aukeraketa oso ezberdinak egiten dira; neskek arte gunea eta jolas sinbolikorako gunea gehien aukeratzen duten bitartean, mutilek psikomotrizitate gunea eta eraikuntza gunea aukeratzen dituzte gehien.
- Goizean goiz aukeratzen duten gunea gerora gehien aukeratzen duten gunearekin bat dator ia kasu gehienetan bai mutiletan eta baita nesketan.
- Ikasleek hitzez esaten duten gune gustukoena ez dator bat gerora gehien aukeratzen dutenarekin, hau da, inkoherentzia ematen da esan eta egiten dutenaren artean.

## 2.3. Helburuak

Ikerketa honen hasierako planteamenduak, 4 urteko ikasleek Konfiantzaren Pedagogiaren eta Adimen Anitzen teoriaren loturaren inguruko zehaztasunak ikasleek egiten dituzten guneen aukeraketaren bidez analizatzea du helburu. Horretarako, lan honek arreta jartzen du ikasleek goizean- goiz egiten duten gunearen lehenengo aukeraketan eta baita goizean zehar egiten dituzten aukeraketa ezberdinetan; ikasle guztiak osotasunean eta baita generoaren arabera kontuan hartuz. Horregatik guztiagatik, ikerketa honen helburu nagusiak honako hauek izango dira:

4 urteko ikasleek...

- Goizean goiz aukeratzen dituzten lehenengo guneek goiz guztian zehar aukeratzen dituztenekin lotura aztertu eta hau generoaren arabera behatu.
- Adimen anitzak lantzeko egiten duten guneen aukeraketa eta generoaren arabera egiten duten aukeraketa ikertu.
- Proposamen berri batek gune baten aukeraketan izan dezakeen eragina aztertu proposamenik gabeko egunekin konparatuz.

- Ikasleek hitzez esaten dituzten gune gustukoenak gerora aukeratzen dituzten guneekin bat datozen aztertu.

## **2.4. Testuingurua: Iñigo Aritza ikastola**

### *2.4.1. Ikastolako testuingurua*

Ikerketa aurrera eraman den ikastetxea Altsasun kokatua dagoen Iñigo Aritza ikastola da.

Altsasu, Gipuzkoa eta Arabarekin muga egiten duen eta 7500 biztanletik gora duen herria da. Sakanako autobidetik joan ezkerre, Iruña eta Gasteiz tartean kokatua dago, bi hiri hauetatik kilometro kopuru antzekora baitago.

Horretaz gain, errepidez eta trenez bertara iristeko oso ondo komunikatua dago, Araba eta Nafarroako hiriburuen arteko herririk handiena eta Sakana bailarako handiena baita populazioz.

Altsasuko ekonomia metalean, eraikuntzan eta zerbitzuetako industrian oinarritzen da nahiz eta Sakana, ekonomiari dagokionez, Nafarroa mailan krisialdiak eragin gehienetarikoa izan duen zonaldea den. Krisialdiaren ondorioz, alegia, azken urtetan enpresa ugari itxi dira eta eraikuntzak geldialdi nabaria jasan du. Horren ondorioz, zerbitzuak ere ez daude momentu hoberenean eta orokorrean langabezia tasa altua da.

Krisiak Altsasun eragin nabaria izan duen arren, etorkin magrebiar eta subsahariar asko etorri dira herrira bizitzera, euren seme alaben eskolaratzea gehien bat A eredia eskaintzen duen Zelandi eskola publikoan egin dutelarik. Badaude, ordea, eskola publiko honetan D eredia aukeratu duten ikasle etorkinak ere, baina gutxiengoa dela aipatu beharra dago.

Altsasun, Iñigo Aritza ikastolaz gain, beste bi ikastetxe daude: aurretik aipatutako Zelandi eskola publikoa eta Jesusen Bihotza itunpeko ikastetxe erlijiosoak.

Azkenik, esan bezala, Altsasun kokatua dago Iñigo Aritza ikastola, baina zehazki, bi eremu ezberdinetan kokatuak dauden bi eraikin ezberdin ditu: bata mendialdean (LH

3. mailatik DBH 4. mailara arte) eta bestea herriko alde zaharrea (0 urtetik LH 2. mailara arte).

Alde zaharrea kokatua dagoen eta ikerketa hau egin den eraikinaren zonaldeko mapari erreparatu ezker, eskolaren mendebaldean etxebizitza ugari, parke bat eta ibilgailuen mugimendu gutxi dagoela ikusiko dugu. Iparraldean, aldiz, kanposantua aurkitzen da eta ekialdean belardiak eta baratzak daude.

#### *2.4.2. Gelako testuingurua*

Esan bezala, ikerketa hau herriko alde zaharrea kokatzen den eraikinean egin da. Eraikin honek Txioka izena dauka eta bi solairutan banatua dago. Beheko aldean lehenengo zikloko (0- 3 urte bitarteko ikasleekin) eta bigarren zikloko (3- 6 bitarteko ikasleak) ikasleak daude kristalera batekin banatuta. Goiko pisuan, aldiz, LH 1. mailako eta LH 2. mailako gelak daude.

Orokorrean, 9 gela arrunt (hauetatik 6 komunekin), 3 komun orokor, ingeles gela handi bat, psikologoaren bulegoa, orientatzailearen bulegoa, logopedaren bulegoa, irakasleen gela, administraziorako eta zuzendaritzarako 2 bulego, jantokia, sukaldea, aretoa, 2 biltegi eta irakasleentzako sukaldea daude. Bestalde, kanpoaldean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek erabiltzen duten estalpe handi bat, bi patio, are tokia eta baratze bat daude.

Ikerketa, Haur Hezkuntzako zikloko lau urteko ikasleen gelan eraman da aurrera. Gela hau 27 ikaslek osatzen dute eta tutorea Esther Garaialde da.

Ikasle hauen artean, Ziordiko ikasle bat, Olatzagutiako bi ikasle, Urdiaingo 3 ikasle eta Altsasuko 20 ikasle daude. Horretaz gain, 17 ikaslek dute euskara ama hizkuntza eta 10-ek, aldiz, gaztelania.

### **2.5. Metodologia**

Metodologiaren atal honi dagokionez, bi azpi- atal banatu dira, biak ikerketa honetan funtsezkoak izan baitira.



Alde batetik, Haur Hezkuntzan erabiltzen den metodologiari erreferentzia egin zaio, hau izan baita guneen analisisa eta orokorrean lan hau aurrera eramateko alderdi esanguratsuena eta funtsezkoena.

Bestetik, ikerketa honen muina den guneen analisi kuantitatiboa burutzeko erabili den metodologiaren atala osatu da, bertan ikerketaren parte hartzaileak, datu bilketa egiteko modua... azaldu direlarik.

### *2.5.1. Haur Hezkuntzako metodologia*

Iñigo Aritza ikastolan, Haur Hezkuntzan, atal teorikoan azaltzen den Konfiantzaren Pedagogia aurrera eramaten dute eta honen baitan, beste zenbait alderdiez gain, Adimen Anitzen teoria hartzen dute kontuan.

Konfiantzaren pedagogiaren ondorioz, eskola tradizionalan zeuden gelako lau hormak “desagertu” egin dira, eta 3-6 urte bitarteko haurrak batera hezten dira. Hau da, lehen gela itxiak zeuden lekuan, adimen ezberdinak lantzeko guneak jarri dituzte eta 3-6 urte bitarteko haurren interesen esku uzten da momentu bakoitzean zer ikasi, zer ekintza burutu eta zein gunetara joan nahi dutenaren erabakia; modu honetan, ikasleei euren autonomia garatzeko baldintzak emanez.

Hau da, marko teorikoan azaldutakoa laburbilduz, esan dezakegu behin hurrek euren buruengan eta besteengan konfiantza dutenean, ingurua esploratzen hasten direla horretarako bidelagunak diren hezitzaileek Adimen Anitzekin lotuta dauden guneetan egindako proposamenak dituztelarik.

Gune hauek normalean ikastola guztietan antzekoak diren arren, Adimen Anitzen arabera zehazten baitira, ikastola bakoitzaren esku uzten da hauek antolatzeke modua. Hori dela eta, jarraian Iñigo Aritza ikastolan duten eguneko plangintza, zirkulazio librean ikasleek aukeratzeko dituzten guneak eta gune bakoitzeko zehaztasunak emango dira:

#### *2.5.1.1. Eguneko plangintza*

Iñigo Aritza ikastolan, Haur Hezkuntzan, plangintza baten arabera egiten dute lan. Plangintza hau guztiz itxia ez den arren eta egun puntualetan aldaketak izan ditzakeen

arren, kurtso hasieran zehazten dute Haur Hezkuntzako irakasle guztien artean. Hau izaten da jarraitzen duten plangintza:


**Taula 1.** Orduategia

Ordua	Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9:00 – 9:30	Asanblea				
9:30 - 11:45	Guneak				
11:45 – 12:00	Hamaiketako				
12:00 – 12:30	Atsedena				
12:30 – 12:50	Musika	Mapping	Ipuina	Optimist	Pentazitatea
12:50 – 14:40	Bazkaria				
14:40 - 15:00	Asanblea				
15:00 – 16:10	Guneak				
16:10 – 16:30	Atsedena				

### 2.5.1.2. Zirkulazio libreko guneak

Gaur egunera arte, proiektu pedagogikoa arkitektonikoaren menpe egoten zen beti, baina orain, lehentasuna proiektu pedagogikoak dauka. Hori dela eta, Iñigo Aritza ikastolan espazio zabalak, hiru dimentsiotakoak, berritzaileak, erakargarriak eta ikasleen kuriositatea bultzatuko dutenak izaten saiatzen dira. Azken finean, mugatzen ez duten espazioak, hurrek euren buruei muga jartzen laguntzen dutenak.

Horretarako, hurrei euren egoera emozionalarekin zerikusia duten guneak eskaintzen zaizkio eta ikastolarekiko atxikimendua lortzen duenean hurrak gune hauetan esploratzen, inguruko objektuetan atentzioa jartzen eta bere barnean dutena ikertzen hasten dira.



**2. Irudia.** Guneen plano.

**Taula 2.** Irakurketa- idazketa gunea.

<b>IRAKURKETA- IDAZKETA GUNEA</b>	
<b>Zein adimenekin dago lotuago?</b>	Adimen linguistikoarekin gehien bat.
<b>Zeintzuk dira bertako materialak?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Letrak idazten ikasteko tablet aplikazioak.</li> <li>- Fitxak</li> <li>- Arkatzak</li> <li>- Letrak (abezedarioa) dituzten tanpoiak</li> </ul>
<b>Gunearen azalpen laburra:</b>	<p>Irakurketa- idazketa gunea hurrek ipuinak irakurtzeko (euren kabuz edota hezitzaileak kontatuta) eta idazketarekin zerikusia duten jarduerak egiteko diseinatua dago.</p> <p>Hurrek, askotan, istorioen bitartez euren emozioak, kezak, beldurrak... proiektatzen dituztenaren eta proiektatuak ikusten dituztenaren ideia garatzeko asmoz, gune honetan</p>

	<p>hezitzaileek aukeratutako ipuin didaktikoak liburutegi txiki batean ordenatuak dituzte. Horrez gain, irakurtzen duten bitartean lurrean eseri eta eroso egoteko lurrean alfombra bat dute.</p> <p>Bestalde, idazketa lantzeko, letrekin, hitzekin... zerikusia duten fitxak dituzte haurren eskura eta hauek osatzeko, arkatzaz gain, beste baliabide batzuk ematen zaizkie, hala nola letren tanpoiak edo letren pegatinak.</p> <p>Horrez gain, esan beharra dago IKT- eek ere zeresan handia dutela gune honetan: alde batetik, ipuin ezberdinak tabletean ikusi eta entzun baititzakete eta bestetik, letrekin jolasteko aplikazio ezberdinak baitituzte.</p> <p>Azkenik, aipatzekoa da gune honetako giroa bereziki lasaia dela. Hori dela eta, askotan musika lasaigarria egoten da eta haurrak isiltasunean mantentzen dira, bakoitza bere barne munduan sartuta.</p>
--	--

**Taula 3.** Matematika gunea.

<b>MATEMATIKA GUNEA</b>	
<b>Zein adimenekin dago lotuago?</b>	Adimen logiko- matematikoarekin gehien bat.
<b>Zeintzuk dira bertako materialak?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pieza geometrikoak</li> <li>- Regletak</li> <li>- Matematikarekin lotura duten fitxak</li> <li>- Segidak osatzeko materialak</li> <li>- Tamaina ezberdinetako piezak</li> <li>- Kontaketak egiteko bolatxoak</li> </ul>

	- ...
<b>Gunearen azalpen laburra:</b>	<p>Logika- matematika gunea aukeratzen duten ikasleek, bi aukeren artean aukeratu behar izaten dute gehienetan.</p> <p>Lehen aukera, matematikarekin zerikusia duen fitxa bat burutzea izaten da, hala nola: batuketa ximple batzuk, luzerarekin zerikusia dutenak, segidak... Normalean, hasiera batean gunean dagoen hezitzaileak fitxa eman eta azaldu egiten dio ikasleari eta ondoren, laguntza behar badu edo zailtasunak baditu, fitxa hauek burutzeko lagungarriak izan daitezken materialak eskaintzen dizkio (regletak, bolatxoak, gometxak...).</p> <p>Bigarren aukera, matematikarekin zerikusia duten jolasekin aritzea izaten da. Hori dela eta, apaletan ordenean dauden jolas ezberdinen artean aukeratzen dute ikasleek: errusiar panpinak, serieak osatzeko jolasak, pieza geometrikoekin erlazionatutako jolasak etab.</p> <p>Gune honekin bukatzeko, aipagarria da gune honetako fitxek eta jolasek askotan azalpena eta <i>feedback</i>- a behar izaten dutenez, hezitzailea oso presente egoten dela.</p>

**Taula 4.** Eraikuntza gunea.

<b>ERAIKUNTZA GUNEA</b>	
<b>Zein adimenekin dago lotuago?</b>	Adimen bisual- espazialarekin gehien bat.
<b>Zeintzuk dira bertako materialak?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tamaina ezberdinetako egurrezko bloke karratuak.</li> <li>- Tamaina ezberdinetako kartoizko zilindroak.</li> <li>- Tamaina ezberdinetako egurrezko zilindroak.</li> <li>- Egurrezko zirkulu erdiak.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eraikuntzak egiteko plastikozko blokeak.</li> <li>- ...</li> </ul>
<b>Gunearen azalpen laburra:</b>	<p>Eraikuntza gunean, hurrek, ondo banatutako espazio batean, eraikuntzak egiteko garatzen duten gaitasuna asebetetzeko materiala dute tamainaren, formaren, materialaren etab.-en arabera sailkatuta.</p> <p>Eraikuntza handien aldean, orokorrean, material naturalak erabiltzen dira, hala nola egurrezko blokeak, makilak, hostoak, kortxoak... Hala eta guztiz ere, irakasleari egoki dela iruditzen baldin bazaio, egituratutako material batzuk sartzen dituzte ere zenbaitetan eraikuntzetan, hala nola, jostailuzko animaliak edo garraioak. Modu honetan, askotan, ikasleak euren kabuz egindako eraikuntzetatik jolas sinbolikora pasatzen dira.</p> <p>Eraikuntza txikien aldean, aldiz, plastikozko materiala da nagusi eta material honen artan "mekano" jolaseko pieza iman jolasak eta orokorrean eraikuntzak egiteko pieza txikiak dituzten eta motrizitate fina lantzeko jolasak erabiltzen dituzte.</p>

**Taula 5.** Arte gunea.

<b>ARTE GUNEA</b>	
<b>Zein adimenekin dago lotuago?</b>	Adimen bisual- espazialarekin gehien bat.
<b>Zeintzuk dira bertako materialak?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kolore anitzetako orriak</li> <li>- Plastilina</li> <li>- Plastilinarekin ibiltzeko makilak, moldeak etab.</li> <li>- Tenperak</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pintzelak</li> <li>- Argi mahaia</li> <li>- Argi mahairako materialak</li> <li>- ...</li> </ul>
<p><b>Gunearen azalpen laburra:</b></p>	<p>Arte gunea ikasleek euren sormena garatzeko pentsatua dagoen gunea da.</p> <p>Bertan, ikasleek arte plastikoarekin zerikusia duten jarduerak burutzen dituzte, lau proposamenen artean aukeratuz:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Argi mahaiaz baliatuz marrazkiak egitea.</li> <li>2. Marrazki librea tenperekin.</li> <li>3. Plastilina.</li> <li>4. Hezitzaileak egunero egiten duen proposamena.</li> </ol> <p>Lehenengo hiru puntu hauetan ikasleek ez dute materialez gain bideratuko dituzten beste ezer, hau da, beraiek aukeratu dezakete eskaintzen zaien material horrekin zer egin.</p> <p>Laugarren puntua, aldiz, zehatzagoa izaten da eta hezitzailea izaten da hori bideratzearen arduradun. Arte guneko espazio batean, irakasleak proposamen ezberdinak egiten ditu egunaren arabera eta hauen luzera proposamenak duen arrakastaren arabera izaten da.</p> <p>Horretaz gain, espazio honetan, zenbaitetan, orokorrean ikastolan lantzen dauden gaiekin zerikusia izaten du. Hau da, adibidez, gai ezberdinekin zerikusia duten eskulanak egiten dira: korrikako petoak, inauterietako maskarak, oporretara joatean lanak etxera eramateko poltsen apaintzea... Beste zenbaitetan, aldiz, beste proposamen mota batzuk egiten</p>

	dira, hala nola “Munch-en oihua” euren argazki batekin sortzea edo plantxatutako plastikoekin bitxiak sortzea.
--	--

**Taula 6.** Psikomotrizitate gunea.

<b>PSIKOMOTRIZITATE GUNEA</b>	
<b>Zein adimenekin dago lotuago?</b>	Adimen gorputz- zinetikoarekin gehien bat.
<b>Zeintzuk dira bertako materialak?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egurrezko barrak</li> <li>- Oihalak</li> <li>- Kuxinak</li> <li>- Koltxoneta mota ugari</li> <li>- Bloke bigunak</li> <li>- ...</li> </ul>
<b>Gunearen azalpen laburra:</b>	<p>Iñigo Aritza ikastolako Haur Hezkuntzako hezitzaileen ustez, ikastolako edozein gunek haurrek duten mugitzeko beharrari erantzun behar dio, mugimendua garapenaren ardatz garrantzitsua delako. Horregatik, mugimendu beharrari erantzuteko baliabideak jartzen dituzte eskura ikastolako gune guztietan, eta bereziki, “salto gela” izenez ezagutzen duten psikomotrizitate gunean.</p> <p>Gune honetan haurrari bere gorputza erabiliz mugitzeko, igotzeko, jaisteko... aukera eskaintzen zaio, beti ere mugimenduaren askatasuna ardatz izanik eta inoiz ez haurren mugimendu gaitasuna “azkartzeko” saiakerarik eginez.</p> <p>Bestalde, irakasleak kontziente dira ikasleen artean mugitzeko trebezia ezberdinak dituzten haurrak daudela, ezin baitezakegu ahantzi 3-6 urte bitarteko haurrak batera</p>



	<p>hezten direla. Horren ondorioz, zailtasun ezberdineko bideak edo baliabideak eskaintzen dituzte, haur bakoitzari indibidualki baina aldi berean ikasle guztiei egokitutako erronkak eskainiz, alegia.</p>
--	--

**Taula 7.** Imaginarium gunea.

<b>IMAGINARIUM GUNEA</b>	
<b>Zein adimenekin dago lotuago?</b>	Adimen intrapersonalarekin gehien bat.
<b>Zeintzuk dira bertako materialak?</b>	<p>Ez dago ikasleek manipulatzeko material askorik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Mantak</li> <li>- Kojinak</li> <li>- Musika</li> <li>- Bideo lasaigarriak</li> </ul>
<b>Gunearen azalpen laburra:</b>	<p>Gune hau, ikasleen gogoetarako eta erlaxaziorako pentsatua dago eta orokorrean, Konfiantzaren Pedagogian oinarritzen diren ikastetxe guztiek daukate.</p> <p>Espazio honen helburua hurrek gau txarra pasa badute, haserre badaude, lasaitzeko beharra badute eta orokorrean, dena delakoagatik, beste guneetan egoteko indarrarekin sentitzen ez badira lasai egoteko espazioa eskura izatea da.</p> <p>Iñigo Aritza ikastolan “Imaginarium” gunea gela txiki bat da, non ikasleek koltxoi baten gainean etzan, mantekin tapatu, pantaila batean erlaxatzeko bideo bat ikusi eta musika entzun dezaketen.</p>

**Taula 8.** Natura gunea.

<b>NATURA GUNEA</b>	
<b>Zein adimenekin dago lotuago?</b>	Adimen naturalistarekin gehien bat.
<b>Zeintzuk dira bertako materialak?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haziak</li> <li>- Kafea</li> <li>- Area</li> <li>- Naturarekin zerikusia duten materialak dituen argi mahaia.</li> <li>- Animaliak</li> <li>- Egurrak</li> <li>- Lupak</li> <li>- Baserri bat eraikitzeke jolasa</li> <li>- Eskeleto erraldoia</li> </ul>
<b>Gunearen azalpen laburra:</b>	<p>Natura gunea ikasleei behaketa, manipulazioa eta experimentazioa garatzen laguntzen die. Gune honetan, ikasleek errealitatean inguratzen dituzten landare edota animaliekin lotura eta naturarekiko errespetua lortzen dute material ezberdinen bitartez.</p> <p>Beste guneen moduan, gune hau ere mugatuta dago, baina kasu honetan, gunearen barneko mugak ere ikus ditzakegu: alde batetik, animaliekin, egurrekin eta eskeleto erraldoiarekin lurrian ibiltzeko espazioa dago eta bestetik, aurreko honetatik armairu batez bereizita, hazien, kafearen eta arearen aska erraldoiak daude. Gainera, beste iskina batean argi mahaia dago eta beste batean, aldiz, naturarekin zerikusia duten joko egituratueta jolasteko</p>

	<p>mahaia.</p> <p>Azkenik, askotan ikasleen arreta eta jakin mina pizten duten apaingarriak daude gelan zehar, hala nola: erradiografiak, planeten zintzilikariak, dinosauroen argazkiak, landareak...</p>
--	--

**Taula 9.** Jolas sinbolikorako gunea.

<b>JOLAS SINBOLIKORAKO GUNEA</b>	
<b>Zein adimenekin dago lotuago?</b>	Adimen interpertsonalarekin eta adimen linguistikoarekin gehien bat.
<b>Zeintzuk dira bertako materialak?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sukaldetxoa eta sukaldeko tresnak</li> <li>- Denda</li> <li>- Plastikozko jaki ezberdinak</li> <li>- Etxeko gailuak</li> <li>- Oihalak</li> <li>- ...</li> </ul>
<b>Gunearen azalpen laburra:</b>	<p>Hurrek, bi urtetatik aurrera, jolasean daudela, jolas sinbolikoa garatzeko ohitura dute. Horregatik, jolas sinboliko hau garatzeko, gune bat dute, denda batekin eta etxe moduko batekin osatua.</p> <p>Txoko honetan dauden materialak, bereziak dira, objektu eta espazio aproposak behar baitira jolas sinbolikoa gauzatu ahal izateko. Erabat zehaztutako materialak eskaintzerakoan, jolas sinbolikoa mugatu egiten da hein batean, sinbolizazio lana eginda ematen baitzaio haurrari. Horregatik, gune honetan material ez egituratuak eskaintzen saiatzen dira. Hau da, esate baterako, mozorro jakin bat eskaini ordez (sukaldari mozorroa esate baterako), nahi duten mozorroa sortzeko aukera ematen dieten jantzi</p>

	<p>eta materialak eskaintzen dituzte (sukaldari, pirata, arrantzale edo nahi duten mozerroa sortzeko).</p> <p>Bestalde, haurrak jolas sinbolikoan ari direnean bere barnea proiektatzen dute, hau da, euren beldur, kezka eta desioak proiektatzen dituzte. Askotan, rol ezberdinak hartzen ditu, bere inguruan dauden pertsonen ekintzetan bere bizipenak nolabait antzeztuz. Horregatik, gune honetan sortzen den jolasa behar izaten du inguratzen duen mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko.</p> <p>Azkenik, esan beharra dago haurraren gorputzeko eta hitzeko komunikazioa eta sozializazioa garatzeko leku bikaina dela jolas sinbolikorako txokoa; jolasean sortzen baitira elkarrizketak, negoziazioak eta rol banaketak...</p>
--	--

Guneen azalpen labur honetan, gune bakoitzak Adimen Anitzen teoriaran zehazten diren zortzi adimenetako zeinekin duen lotura gehien azaldu da, baina “gehien” hitzari erreparatzea funtsezkoa da arrazoi nagusi bat dela medio: gune bakoitzak erlazio nahiko zuzen bat du adimenetako bakoitzarekin, eta gune bakoitzean, “nagusizat” jo dezakegun adimen bat garatzen da. Hala eta guztiz ere, zeharka beste adimen batzuk lantzen dira. Horregatik, hurrengo lerroetan, adibide ezberdinen bitartez, aipatutako ideia hau azalduko da:

- 1. Adibidea: Natura gunean duten hazien (babarrunak, zekaleak eta ilarrak) kutxa erraldoian, adimen naturala lantzeaz gain adimen logiko- matematikoa ere lantzen dute, multzoak eta sailkapenak egiten baitituzte ikasleek askotan. Horretaz gain, sailkatu dituzten haziak ere zenbatzen dituzte askotan eta modu honetan kontaketa ere lantzen dute.
- 2. Adibidea: Natura gunean, animaliekin jolasteko egurrak dituzte eta egur hauekin, askotan, animalientzako etxeak eraikitzen dituzte, modu honetan adimen bisual- espaziala landuz.

- 3. Adibidea: Jolas sinbolikoko gunean, adimen interpertsonalaz gain linguistikoa ere izugarri lantzen dute, jolas sinbolikoan rolen banaketa eta orokorrean jolasa hizkuntzan oinarritzen baita.
